

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-01-21
ASTELEHENA
394. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Lepoa luzatuko zait [profesionalekin lehian], baina ez dut batere beldurrik"

Mikel Aristi | Ziklista | 27

Bergarako Udalak Gerriko Berdea ibilbidea prestatu du | 16



Zuzendaritza berritza da Besaideren lehentasuna | 15



Ernesto Sevilla, Elgeta asteburuan barrez lehertu duen gizona | 29

Derbia irabazita, Aretxabaleta mailaz igotzeko lehia sartu da

2-0 aurreratu arren Albistegiren mutilek sufritu egin zuten atzo, Uribarrenen golak Mondra partiduan sartu zuelako ostera | 22



Alberto Albistegi entrenatzailea jokalariei keinuka, eta bitartean Iker Uribarren eta Hibal Hernandez lehia, taldekideen eta zaleen begiradapean.

JOSETXO ARANTZABAL

Debagoieneko ziztada jaso zuen 'Berria'-k

Jaialdi arrakastatsua egin zuten zapatuan Amaian | 6

"Udal Gobernuak presio giroaren inguruan kezkatu behar du"

Lourdes Idoiaga | EAJko zinegotzia | 4



50 urtetik gorako etxeek ITEa pasatu beharko dute

2015era bitartean pasatu beharko dute azterketa hori | 2

Sahararako Anelkarrek egindako kanpaina amaitzear dago | 11

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



WOK
zabaldu berria Arrasaten!

Menua, postrea barne. 10 menu hartuta, 1 DOAN

BEREZITASUNAK

- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak



1.000 modelo baino gehiago

57€
graduaturiko kristalak barne

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

mó
zuretzat sortuak

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

50 urtetik gorako etxe guztiek ITEa pasa behar dute 2015 bitartean

- ▶ ITEa betebeharra zen, baina orain epe batzuk ditu
- ▶ Aurten, 1901era arteko etxeek egin behar dute
- ▶ Azterketa bisuala da, eta diruz lagunduta dago

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Antzinako etxebizitzaren jabeek eta bizilagun-komunitateek betebeharrak izango dute datozten hilabeteotan: Eraikinen Azterketa Teknikoa (espainolezko ITE siglekin ere ezaguna) pasatu beharko du eraikina. ITEa bazeagoen eta betebeharra zen adin batetik gorako etxebizitzetarako, baina abenduaren 15ean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek epe zehatzak ipintzen ditu betebeharrak horrekin kunplitu dezaten jabeek. Aurten bertan, 1901ekoak baino zaharragoak diren etxebizitzek egin beharko dute ITEa; 2014. urtean, 1940ra artekoak; 2015ean, 1965era artekoak; eta ordukoak baino berriagoak, dagokien urtean. Etxebizitza sailaren datuak estrapolatuta, Debagoieneko 1.000 bat eraikinek egin beharko dute ITEa hiru urte hauetan. Hori eta gero, ITEa 10 urte behin egin beharko da.

ITEa begiz egindako ikerketa da eta horretarako zertifikatutako profesionalak egin behar dute: arkitektoek, arkitekto teknikoek edo aparejadoreek. Azterketa bera egiteak orain arte 1.000 euro arteko dirulaguntza izan du, hau da, azterketaren gastu osoa edo ia osoa; eta, probabilitate handiz, dirulaguntza horiek jarraituko dute. Gero, konponketa batzuk egin beharra egon daiteke.

Dagokion udalendako ere ardurak ezartzen ditu Etxebizitza sailaren dekretu horrek. Hala, derrigortuta dagoen jabe batek edo komunitate batek ez badu ITEa dagokionerako egiten, Udalak modu subsidiarioan egin ahal izango du, eta zigorrak izan ditzake jabe edo komunitate horrek.

Derrigortasun horren helburua Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Gizarte-Hitzarmenaren haritik dator. Bere printzipioen artean, eraikitako parkea birgaitzeko helburua dago; etxebizitzaren bizitza erabilgarria luzatzea eta bizi-izateko hobea eta erosoagoa egitea, irisgarriagoa izatea eta energetikoki eragingarriagoa izatea.

Ikusi eta diagnostikatu

ITEak eta birgaitzeak egiten espezializatuta dauden arkitekto batzuek osatzen dute Ite Euskadi elkarte (www.ite-euskadi.com). Gipuzkoan bi ordezkariak dute, horietako bat Arrasaten, Alberto Mendieta eta Edurne Goiatxe arkitektoek osatua. Jendea lasaitu gura dute: "Ikuskatzen dena guztiz araututa dago, eta Etxebizitza sailak aplikazio informatikoa sortu du dena erregulatuta egon dadin. Dena begiz aztertzen dugu. Idealena izango litzateke apurketak egitea, baina ez dugu horrela egiten. Gure esperientziaren bidez jakin dezakegu

bistan dagoen zerbait arazo baten aztarna izan daitekeen".

Dekretuaren arabera, lau arlo aztertu behar dira: estaldura, estruktura edo egitura, aurrealdea edo fatxada –horrek dituen elementu guztiak: balkoiak, barandak...– eta ur-instalazioak –ur-hornikuntza eta saneamendu instalazioak; eta bakarrik komunitarioak direnak, ez norberaren etxeokak.

Gero, ikerketa egin dutenek informea idatzi behar dute, Etxebizitza sailak ematen dituen jarraibideen arabera. "Hori egin eta gero, mediku batek pazientekin egiten duen moduan, diagnosis egin behar da: ze topatu duzun eta, zure iritziz, zergatik dauden arazo horiek", azaltzen du Alberto Mendieta.

Bost kalifikazio posible

Baliteke ITEa egin eta gero, etxebizitza horrek konponketarik behar ez izatea. Edo baliteke baietz. Premia hori ikerketa egin duenak erabaki behar du. "Hori da zati garrantzitsua", esaten dute Mendieta eta Goiatxe. "Bost premia gradu daude: berehalakoa, oso premiazkoa, premiazkoa, epe ertainekoa eta mantenua. Ikerketa egin duen teknikariak zehaztu behar du. Proiektua behar izateko moduko kalte larriak badira, hala esan behar du, eta proiektua noizko egon behar den



Etxebizitzak Arrasate erdialdean. | LEIRE KORTABARRIA

eginda. Adibidez, aurrealdean zerbait jausi beharrean badago, segituan konpondu behar da; edo, adibidez, kalte estetikoak edo arazo larririk ekartzen ez duten hezetan baldin badaude, proiektuak itxoin dezake", gaineratzen dute arkitektoek.

ITEaren ondorioz egiten den informea komunitateari edo eraikinen jabeari ematen diote; hark bere udalari eman behar dio; eta udalak, Eusko Jaurlaritzari. Gainera, udalaren ardura da konpondu egin behar diren etxebizitzaren jarraipena egitea. Dena dela, ITEa 10 urte behin egin behar denez, hurrengo azterketen zati bat da aurreko azterketen ondorioz sortu ziren betebeharrak bete egin direla ziurtatzea.

Katastroko datuak

ITEa jabeak edo komunitateak eskatu behar du. Horretarako, kontzientzia hartu eta hurrengo pausoa da azterketa egiteko baimenduta dagoen norbaitengana jotzea. Etxebizitza noizkoa den jakiteko, Ogasun Foralera jo daiteke, katastroa.

Jakin beharrekoak

LEGEA EAEko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 Legeak agintzen du 50 urtetik gorako eraikinen jabeek 10 urte behin ITEa enkargatzeko.

DIRULAGUNTZA Eraikinen arabera, gehiago edo gutxiago kostatzen da ITEa. 1.000 euro arteko dirulaguntzak ematen ditu Jaurlaritzak azterketa egiteko.

ENKARGATU Eraikinen jabeak edo bizilagun komunitateko presidentek enkargatu behar dio ITEa horretarako kalifikatuta dagoen arkitekto edo aparejadore bati.

PROZESUA Galdetegi bat bete beharko dute bizilagunek. Gero, etxebizitza batzuk begiz aztertuko ditu teknikoak.

TXOSTENA Topatu dituen arazoak txosten baten zehaztu eta, kasuan kasu, konpontzeko proiektua egiteko epea zehaztuko du teknikoak. Informe hori udalak eta Jaurlaritzak ere izango dute.

ESANAK

"Komunitarioa dena begiratzen da, ez etxebizitza bakoitzarena"

ALBERTO MENDIETA | ARKITEKTOA

"Garrantzitsua da ze arazo den larria eta zein ez, hori erabakitzea"

EDURNE GOIATXE | ARKITEKTOA

"50 urteko etxea erosi nahi duenak ITEaren emaitzak ikusi ahalko ditu"

"Euskadiko etxeen %32k mende erdi edo gehiago dute"



EDURNE GOIATXE ETA ALBERTO MENDIETA | ARKITEKTOAK

"Azterketa teknikoan datuak publikoak izango dira"

Orain arte ere derrigorrezkoa zen ITEa, ezta?

Alberto Mendieta: Bai. 2006ko Lurzoruaren Legeko artikuluko batek 50 urtetik gorako eraikinen jabeendako ezartzen zuen derrigortasun hori. Baina jendeak ez du horren berri izan, askok ez dute egin... Norbait etxebizitza birgaitzeko dirulaguntza eske joaten zenean, Suradesara edo beste nonbaitera, orduan esaten zieten lehenengo ITEa egin behar zutela, eta, obrak egin behar baziren, dirulaguntzarekin lehenengo horiek egin behar zituztela.

Azterketa teknikoak txosten bat sorraraziko du. Horrekin zer gertatuko da?

Edurne Goiatxe: ITEko informea Udalak eta Eusko Jaurlaritzak jasoko dute. Eusko Jaurlaritzak eraikin guztien artxibo orokorra sortzeko asmoa du. Apirilatik-edo aurrera, 50 urtetik gorako etxebizitza erosten duenak artxibo horretan informazioa jasotzeko aukera izango du.

A.M.: Abantaila handia izango da, informazio hori publiko izango delako. Etxebizitza hori erosi nahi duenak jakin ahal izango du eraikinak ITEa pasa zuen, zer antzeman zen, konpondu ote zen...

Gastua izango da, ordea...

A.M.: Bai, komunitateendako gastua da. Dena dela, ITEaren kostu osoa edo ia osoa subentzionatuta dago, eta obrak egin beharra egon daiteke, edo beharbada ez. Eta interesgarria da ITEa, ez bakarrik etxe horretan bizi direndako, baita oinezkoarendako ere, zenbait kasutan arriskua sor daitekeelako etxebizitza batzuen inguruan.

ITEa egiteko, ze pauso jarraitzen dira?

A.M.: Telefonoz egoten gara komunitateko presidentearekin, eta datu batzuk ematen digu: eraikina non dagoen, noizkoa den... Gero, bizilagunek galdera gutxi batzuk erantzun behar dute idatziz: ea hezetasunak, zartadurak eta antzekoak topatu dituzten; gero, arazoak dituzten etxebizitzak begiratzen ditugu, jabearen baimenarekin.

Zein da derrigortasun honen helburua?

A.M.: Ondarea ondo gordetzea. Dagoena ondo eduki behar da eta, ahal bada, hobetu; jakin zer daukagun, ea segurua den, ea energetikoki eraginkorra den, ea irisgarria den...



bizilagunendako etxebizitza hobea eta erosoagoa izan dadin, eta pentsatzen dut egin behar diren obrak diruz laguntzeko partidak sortuko dituela Eusko Jaurlaritzak.

Nola daude hemengo etxebizitzak?

E.G.: Eusko Jaurlaritzak dio 50 urte edo zaharragoak direla Euskadiko etxebizitzaren %32; eta Gipuzkoan dago portzentaia handiena.

A.M.: Bai. 100 urtetik gorakoak zeintzuk diren ezin da ziur jakin. Nola dauden... denetarik dago; birgaitze lanak egin izan dira, baina denetarik dago. Urte horietako etxebizitzek, normalean, arazoren bat edo beste izaten dute: egituraren pipia, termita, onddoak... Ez daude jausteko zorian, ez; baina, orokorrean, ez dira ondo zaindu, eta beste erremediorik ez dagoenean bakarrik ekin izan zaie.

Nola jakin etxeak ze azterketa pasa dituen, ze obra egin dioten...?

A.M.: Eraikin berriek bere liburua dute eta, horren barruan, mantenu-liburua, autoek duten bezala. Hor agertzen da liburuaren mantenuaren historia, eta ikusi daiteke zer mantendu behar den, zenbatero... Etxebizitza zaharragoek ez dute liburua, eta horiek egin egin behar dutela esaten du dekretuak. Hori ITEa egiten duten teknikoek egin dezakete: ze aztertu behar den, noiz... Horrela, komunitateak edo jabeak jarraibide batzuk izango ditu etorkizunarako.

guk, elkar hezi

URTARRILAK 26, ZAPATUA

10:30etan... **ate irekiak**
bisita eta ekintzak

MUSIKOTERAPIA
ELKARREKIN SUKALDEAN
MASAJE ALTERNATIBOAK
ESKULAN TAILERRA

12:00etan luntxa

URTARRILAK

21 ARGAZKIGINTZA TAILERRA
ITZIAR BASTARRIKAREN eskutik 18:00-20:00

22 MAKILLAJE KREATIBO TAILERRA
BI SAIO: 17:00-18:00/18:00-19:00 Sta. Marinaran

23 EKONOMIA EREDU ETIKOA hitzaldia
SETEM-HEGO HAIZEA

24/25 MASAJE ALTERNATIBOAK
NEREA KORTAJARENA

28 ARGAZKIGINTZA TAILERRA (II)
ITZIAR BASTARRIKAREN eskutik 18:00-20:00

29 BETIKO IPUINEI NOLA ATERA PROBETXUA
LUR KORTA 18:30etan

30 INSIDE JOB dokumental emanaldia
18:30 Sta. Marinaran

31 GOZOGINTZA KREATIBOA
17:00-18:00 L.H.ko eraikinean

eman izena!

OTSAILAK

2 ANTZERKIA "MUNDUARI BIRAKA"
GORAKADA antzerki taldea, Sarrerak doan haur eskola eta kultur-etxean

5 GARTXOT film emanaldia
ZUZENDARI ARTISTIKOAREKIN SOLASALDIA

8 EUSKARAREN BIKANTASUNA
jardunaldiak

matrikulazioa
urtarrilak 28-otsailak 8

ELKAR HEZI
Euskadi 2012
Bikain

idazkaritza@elkarhezi.com
hartzaindegia: 943718272

Jon Obeso | Ekintzailea

"Jaiegunetan lan egin izan dugu, baina gogotsu gabiltza"

- ▶ Jon Obesok eta emazteak sortu eta kudeatzen dute Goiena I-Rent
- ▶ Joan den ekainean sortu zuten ibilgailuak alokatzeko enpresa

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Krisi latzean ere, ausardiaz, enpresa-idea bat egia bihurtzen dutenak badira. Kasu bat Oñatiko Jon Obeso eta Maite Almeida senar-emazteek osatzen dute. Ibilgailuak alokatzeko Goiena I-Rent enpresa sortu zuten.

Zeintzuk zarete Goiena I-Rent?

Goiena I-Rent gidari gabeko edozein motatako ibilgailuak alokatzeko enpresa bat gara. 2012ko ekainean jarri genuen gure proiektua martxan. Gure bulegoa Oñatiko Udalak Zubillaga auzoko Olaburu zentroan dituen instalaziotan dago kokatuta.

Zela okurritu zitzaizuen ideia?

Emaztea eta biok aspalditik genbiltzan gure negozio propioa jartzeko asmotan, eta gure eskualdean ze zerbitzu mota faltan zegoen ikusten hasi ginen. Orduan gogoratu ginen behin baino gehiagotan furgoneta baten beharra genuela, eta non alokatu? Horrela ikusi genuen alokairuko enpresarik ez zegoela gure artean.

Esaten da hasierak zailak direla. Zuen kasuan ere hala izan zen?

Bai, denok dakigu nolabait proiektu



Jon Obeso. | LEIRE KORTABARRIA

tu berri bat aurrera ateratzea ez dela gauza samurra eta, gure kasuan, are gehiago, gure bailaran ez zegoelako orain arte horrelako zerbitzu bat. Eta alde batetik ezagutzera eman eta beste batetik horrelako zerbitzu berri bat jendeari barnearaztea ez da gauza erraza izaten, normala den bezala. Era berean, hasieran gaude; diru eta ordu asko sartu behar dira oraindik.

Oñatiko Udalaren laguntza jaso duzue, ezta?

Bai. Enpresa eta lanpostu berriak sortzeagatik dagoen dirulaguntza jaso dugu. Gainera, esan bezala,

Udalak Zubillagan instalazio batzuk ditu, eta hango bulego bat ere alokatu digu. Hori bai, alokairua ez da kalean topatzen direnak bezalakoak, baizik eta laguntza moduan emandako alokairu merke bat.

Ibilgailu asko eta mota askotakoak dituzue. Nola lortu dituzue?

Bai, ibilgailu abanikoa oso zabala da: auto txiki batetik hasita, 9 lagunendako furgonetaraino. Furgoneta industrialak ere baditugu. Guk I-Rent izena duen enpresa bat dugu atzean. Horrek Madrilen du egoitza nagusia eta hainbat agentzia ditu, euren artean gurea. Euren eskutik lortzen ditugu ibilgailuak.

Zelako bezeroak izan dituzue?

Hasiera batean ez geneukan oso garbi zein izango zen gure bezero mota. Ideia bat genuen enpresak

"Gure negozioa jarri nahi genuen, eta ze zerbitzu falta zen begiratu genuen"

izango zirela. Eta horrela izan da, azkenean. Geroz eta enpresa gehiagok daukate gurekin konfiantza eta hor gabiltza lanean. Norbanako bezeroak asko harritu gintuen oporraldi denboran. Abuztua izan zen fakturazio handiena jaso dugun hilabetea ordea. Baina fakturazio kopuru globalean, enpresak izan dira gehienak.

Oñatin betidanik izan da garraio publiko falta. Zuek enpresa moduan ere igartzen duzue hori?

Guk garraio falta hori ez dugu asko nabaritu, agian aireportura joateko bateren bat, baina orokorrean autoak bidaiatzeko eta etxez aldatzeko eskatzen dizkigute, eta lanerako, furgoneten kasuan. Baina herri batetik bestera mugitzeko, ez. Normala den bezala, guk ez dugu galdetzen zertarako nahi duten ibilgailua; orduan, ez daukagu datu zehatzik.

Ateraino eramaten duzue autoa; Loiu-ko aireportura ere eraman daiteke; eta 24 orduko zerbitzua ematen duzue. Nolamoldatzen zarete hori dena eskaintzeko?

Bai, zerbitzu inobatzailea da ibilgailua etxe nahiz lantokiko ateraino eramatea. Loiu-ko aireportuan ere zerbitzua daukagu, han jaso edo utzi daiteke ibilgailua. 24 orduko zerbitzua, oraingoz ez dugu batere eduki baina, tarifa espezial bat du, eta gura izanez gero ematen dugu zerbitzua, izan ere domeka eta jaiegun bat baino gehiagoan egin dugu lan. Nolabait, enpresa bat sortzeagatik ordaindu behar den peajea da, hasieran behintzat. Baina gogotsu gaude eta ez zaigu asko inporta.

MUko ikasleek ingurumenaren gaineko ekitaldia antolatatu dute

Mondragon Unibertsitateko LEINN graduondoko ikasle batzuek debagoiendar guztiak gonbidatu nahi dituzte urtarilaren 25ean eta 26an, egubakoitza eta zapatua, Durangoko Landako gunera joatera, euren antolatu duten Berdeago ekitaldira. Ingurumenaren, iraunkortasunaren eta eraginkortasun energetikoaren inguruan gizartea kontzientziatzeko eta arlo horretako produktu eta zerbitzuak azaltzeko egitasmoa da Berdeago.

Urtea 67 EREekin amaitu zuen Debagoienak

2012a 67 EREekin bukatu du Debagoienak, Gipuzkoako bigarren kopuru txikiena, eskualdeka. 1.187 langile zeuden etendura-espediten baten eraginpean; 164, murrizketa-espediten baten eraginpean; eta 18, kontratu-desegite espediten baten eraginpean; denetara, 1.374 langile, 992 gizonezko eta 382 emakumezko. Enplegu eta Gizarte Politikarako Sailak emandako datuak dira. EAEn, 37.429 pertsona enplegu-erregulazioko hiru modalitateen batean egon ziren.

SU HAIETATIK KE HAUEK

Iñaki Petxarroman, BERRIA-ko kazetaria

«Nork esan behar zigun, herri honetan gertatu diren guztiak gertatuta, azkenean hondakinak izango zirela herrialde honetako eztabaidagai nagusia?». EAJko bozeramaile baten hitz horiek hiritar askoren buruan ibili dira azkenaldian. Baina gaur egun Gipuzkoan hondakin inguruan dagoen gatazkak erro sakonak ditu; izan ere, 2002an Gipuzkoan errauste plantak egiteko lerratu ziren interes politiko eta ekonomikoekin herritarrek izan duten talka dago egoeraren oinarrian. Alegia, errauste plantak eraiki behar zirela erabaki zuenak ez zuen pentsatuko hondakinak gutxitu, berrerabili, konpostatu eta birziklatzeko mugimendu bat sortuko zela Gipuzkoan, zero zabor mugimendua.

Gatazka honen gaineko begirada pribilegiatua izan du Iñaki Petxarromanek, kazetari gisa hasiera-hasieratik jarraitu baititu errauste plantak egiteko proiektuen gaineko gorabehera guztiak, lehen eskutik jasotako informazioarekin sarri. Orain, informazio hori antolatuta eta irakurlearen esku utzi du errealitatea ulertzeko gako guztiak izan ditzan.

Iñaki Petxarroman Berria-ko kazetariaren



Liburuaren aurkezpena eta HITZALDIA

Urtarrilak 23, asteazkena, 19:30ean
OÑATIKO KULTUR ETXEAN

Urtarrilak 30, asteazkena, 19:30ean
BERGARAKO IRIZAR JAUREGIAN



'Berria'-k debagoiendarren 'ziztada' onuragarria jaso zuen zapatuan

- ▶ Zapatuan egin zuten Arrasaten Berria-ren aldeko *Ziztada jaia*
- ▶ Kantuan, bertsoan, antzezten edo bizikletan, debagoiendarrak nagusi agertokian

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Ilaski Serrano eta Kike Amonarritz telebistako aurpegi ezagunek gidatu zuten zapatu iluntzean Arrasateko Amaia antzokian Berria Taldearen alde egin zuten *Ziztada jaia*.

Debagoieneko euskalgintzako taldeek antolatutako jaialdiak musika, antzerkia, bertsoak eta kirola uztartu zituen, eta ibarreko jendea izan zen uneoro agertoki gainean egon zena. Jaiak 280 ikusle inguru erakartzea lortu zuen.

Debagoiendarrak agertokian

Ekitaldia 'Berria'-ren ale bat baitzuen egituratu zuten, egunkariaren ohiko ataletan banatuta: Euskal Herria, Mundua, Kirola, Ekonomia... Atal bakoitzari bideo batekin eman zioten hasiera, 'Berria'-ren ibilbidean sail bakoitzean garrantzitsuenak izan diren gertakariak jasotzen zituzten bideoekin, hain zuzen ere.

Ibarrekoen parte-hartzeari dagokionez, iazko tobera arrakastatsuko hainbat kidek epaiketa txiki bat burutu zuten eta Bea Azurmendi eta Oier Arregi kantariak Pink abeslari estatubatuararen *Dear Mr President* jo zuten. Atzerrian bizi diren debagoiendarren hitzak ere entzun ahal izan ziren eta hauek, den lekuan egonda ere Euskal Herriko albisteak jasotzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Bertsoak eta kirola eskutik joan ziren, Maddi Labaien eta Manex Agirre bertsoan ari zire-

la Oihana Kortazar eta Alberto Iñurrategi bizikletaren pedalak astindu zituzten-eta. Oñatiko Ganbara Txikiko neska-mutikoen bi kantarekin (tartean, *Xalbadorren heriotzean* ezaguna), Berria Taldeko Joan Martin Larrarteren mezuarekin eta oparien zozketa-ekin amaitu zen jaia.

'Berria'-koak, pozik

Joan Mari Larrarterek adierazi zuenez, oso gustura hartu dute debagoiendarren ziztada: "Berria-ren alde egingo duen era honetako proiektu bat, erabat bertan antolatua dena eta eragileek herriaren parte hartzearekin burutu dutena, oso pozgarria da guretzat".

Antolatzaile ibili den AEDko Itxaro Artolak ere balorazio positiboa egin zuen: "Ikuskizuna oso ondo egon da; ez genuen gutxiago espero, baina jendeak maila eman du. Asistentziarekin ere pozik gaude".



Bertsoak eta kirola: Manex Agirre eta Maddi Labaien, Oihana Kortzara eta Alberto Iñurrategirekin. | IMANOL SORIANO

Egubakoitzean telebistan

Goiena Telebistak bertatik bertara jaso zituen jaialdian gertatutakoak, eta oso-osorik ikusteko aukera egongo da egubakoitz gauean, 22:53tatik aurrera.

MIREN GURUTZE ANDUAGA ANTZUOLA



"Laguntzeko asmoarekin etorri naiz, euskal hedabideek laguntza behar dute-eta. Ikuskizuna bera polita iruditu zait, arina eta ikusteko erraza".

MAÑOLE EZENARRO ARRASATE



"Euskararen alde egin behar da, geuk ez badugu egiten ez du-eta inork egingo. Ez da aitzakia, baina gatzeleraz ikasi nuen eta ez dut euskaraz gehiegi irakurtzen".

JOSU ZUGASTI ARRASATE



"Etxean hasieratik izan gara *Berria*-ren harpidedun, eta ikusita ixteko arriskuan egon daitekeela, bultzadatxo bat ematera etorri naiz".

'Tximeletak', gazte mugimenduen gainean jarduteko aitzakia bikaina

Dokumentala aurkeztu zuten Bergaran; 130 lagun elkartu ziren giro ezin hobean

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Egubakoitzean aurkeztu zuten *Tximeletak* dokumentala Bergaran; baita lagun asko elkartu ere eta Zabalotegi txiki utzi. "Arrakasta handiena izan duen aurkezpena izan da, hiriburuetan ere ez dugu izan halakorik, eta oso pozik gaude" jakinarazi du Iraitz Salegik. 130 bat lagun elkartu ziren, eta bergarako gain Oñati, Arrasate eta Elgoibar alde-tik etorritakoak ere bazeuden.

Txalaparta doinuekin eta bertsoak botata eman zioten hasiera

aurkezpenari. Ondoren Salegik berak hartu zuen hitza eta *Tximeletak*: *Etengabeko Metamorfosian* egitasmoaren nondik norakoan berri eman: "Hamarkada bakoitzaren berri emateko sasoi hartako bideoak tartekatatu genituen". Euskal Herriko gazte mugimenduek hiru hamarkada luzetan utzitako arrastoa jaso eta aztertu dute hain zuzen, *Tximeletak* dokumentalean.

80ko hamarkadaren berri ematerakoan dokumentaleko protagonistetako bat den Mikel

Zubimendi bergararra gonbidatu zuten, eta bere esperientziaren berri eman zien. Garai hura giro-tzeko, ostera, RIP taldearen *Terrorismo policial* kantua jo zuten gitarrarekin Ekaitz Aranbarrak eta Ekaitz Otxoak. "Ondoren ikurrin dantza izan zen, baina ikurrinarekin beharrean Haikaren logoarekin", zioen Salegik.

Gaztetxean kontu-kontari

Aurkezpenaren azken tartean Aitziber Plazaola bergararrak hartu zuen txanda, eta azken



Iraitz Salegi 'Tximeletak' dokumentala aurkezten Zabalotegin. | IMANOL SORIANO

urteotako kontuei gainbegiratu eman. Bukatutakoan gatzetxera jo zuten guztiek mokadutxo jatera eta hori ere momentu oso polita izan zela zioen Salegik pozik: "Hainbat belaunalditako

lagunak elkartu ginen eta norberaren esperientziak kontatu bertan".

Hegoaldeko aurkezpenak bukatuta iparraldera joko dute orain; lehenengo Donapaleun da.

goienagida™

Sarean | Mugikorretan | Tabletetan | Paperean

DEBAGOIENENKO KOMERTZIOEN GIDA BERRITASUNEKIN DATOR!



-  Zuzeneko deia egiteko aukera.
-  Geolokalizazioa.
-  Nola joan adieraziko dizugu.

goienagida™

Mugikorrean

Proba ezazu!

Bi modu dituzu:

1 Beheko QR kodea irakurrita edo Google Play edo App Store-tik, Goiena.net aplikazioa jaitsi eta GIDA sakatu.



2 m.goiena.net/gida.html helbidean sartuz.



Webgunean ere

goienagida™

askoz ere osatuagoa:

Bisita ezazu:
www.goiena.net/gida



goienagida™ 2013

-  OÑATI
-  BERGARA
-  ANTZUOLA
-  ELGETA
-  ARRASATE
-  ARETXABALETA
-  ESKORATZA
-  LEINTZ GATZAGA
-  ARAMAIO

20.700 ale
Debagoiena
guztian.
Laster zure etxean!

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Amaia Axpe | Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzia Aramaion (1999-2003)

- ▶ Euskara eta Hezkuntza batzordeko buru izan zen: "Lau urte ez dira nahikoa", uste du
- ▶ Ezker abertzalearen ilegalizazioak hurrengo agintaldirako zerrendaburu izatea ekidin zuen
- ▶ Lan handia eskatu arren, herri txiki bateko zinegotzi izatea "aberasgarria" dela dio

"Zinegotzien arteko harremana ona zen orduan; Udaleko giroa politika gordinak kaskartu zuen"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ilusioz eta lan egiteko asmoz sartu zen Amaia Axpe (Aramaio-ko Azkoaga auzoa, 1970) Udalean. Giro politikoa zaila izan arren, "esperientzia oso aberasgarria" izan zen harendako. Euskara teknikaria da egun Debagoienerako Mankomunitatean.

Zergatik aurkeztu zenuen zure burua zinegotzi izateko zerrendetan?

Herriaren alde lan egiteko gertu nengoen eta lau urteko konpromisoa hartu nuen. Euskararen aldeko lana nuen buruan sartu aurretik, baina banekien herri txiki bateko Udalean denetarik egitea tokatzen dela. Ez nuen erabaki politikan sartzea, herriaren alde lan egitea baizik.

Euskara eta Hezkuntza batzordeko ardura eraman zenuen, ezta?

Hala da. Garai hartan EAJko Iñaki Nafarrate zen alkatea eta batzordeen banaketa egiterakoan Euskara eta Hezkuntza batzordeko buru izateko aukeratu genuen. Beste batzorde batzuetan ere bagenuen ordezkari, baina buru, sail horretan bakarrik.

Nolako zen alderdien arteko harremana, nolako udaletxeko giroa?

Egunerokoa ez zen alderdien arteko harremana, pertsonen artekoa baizik. Zinegotzien arteko harreman hori ona zen. Giroa politika gordinak kaskartu zuen; erabat politikoak ziren gaietan oso ikuspuntu ezberdinak genituen. Adibidez, atentatu bat zegoen gaitzespena eskatzen zitzaigun behin eta berriz; guretzat gaitzespen soila ez zen konponbidea. Herrigintzatik kanpo dauden gaietan sortzen ziren tirabirak; osoko bilkuretan horiek ziren eztabaida sortzen zuten gaiak



Amaia Axpe zinegotzi ohia, joan den egun iluntzean, Aramaio-ko Azkoaga auzoan. | JOKIN BEREZIARTUA

gehienetan. Kasu askotan alderdietako zuzendaritzatik zetozen dokumentuak eztabaidatzen ziren eta horietan ez zegoen akordiorik, jarrerak oso kontrajarriak zire-

lako. Alde hori da gogoratzen dudana txarrena: politika gordinak eragiten zituen tentsio oneak.

Giro horrek eragin zuzena izan al zuen Udalaren jardunean?

Argi utzi behar dut alkatetzat EAJ-rena bazen ere, nire batzordean ez nuela oztoporik izan beharrezkoak ikusten nituen ekimenak aurrera eramateko. Herrirako planteatu nituen proiektuetan ez nuen arazorik izan. Izan ere, herri txiki bateko zinegotzi izanda herrirako benetan lan egiten baduzu, nahiz eta oposizioan egon, oso zaila da ondo landutako proposamen bat atzera botatzea. Lana eskatzen du, hori bai. Nire kasuan euskara teknikari moduan egun erdiz nenbilen lanean, baina beste erdi edo gehiago ematen nuen udaletxean.

Zeintzuk izan ziren abiarazi zenuen proiektu nagusiak?

Orain ikusten dut euskara arloan orduan abiarazitako ekimenek bere horretan jarraitzen dutela.

"Euskara arloko ekimenek bere horretan jarraitzen dute oraindik"

"Lau urte ez ziren nahikoa izan gure proiektu guztiendako"

Alde batetik poza sentitzen dut, ondo egindako lanaren fruitu direlako. Ordukoak dira udaleku irekiak, ludoteka Kultur etxearekin batera zabaltzea, Aramaio-ko euskara jasotzen duen liburua, horren arrakastatsua den eta etxe guztietara heltzen den egutegia... Orduan Udaleko euskara kontuak eramateko ikusi genuen oso tresna baliagarria izango zela euskara elkarte bat egotea; bada, Txirritolaren sorrera fasea bideratu genuen. Era berean, baina, esan behar dut aldaketa batzuk ez liraketekeela gaizki etorriko.

Nolako esperientzia izan zen?

Lan asko egin bai, baina asko ikasi nuen. Administrazio kontuetan asko ikasi nuen eta jende berri asko ezagutu, denetarikoa: euskalgintzakoak, herritarrek, erakundeetakoak... Harremanetarako esparru bat da Udalen lan egitea, eta hori asko ikas daiteke. Hori zuretzat geratzen da. Lan egiteko sartzeko asmoa duenari gomentatuko nioke: objektiboa eta arrazionala izanez gero lan ederra egin daiteke herriaren alde. Niretzat oso aberasgarria izan zen. Era berean, esan behar dut lau urteko zikloa motz geratu zitzaidala. Lau urte ez ziren nahikoa izan esku artean genituen proiektu guztien-dako.

Agintaldiaren amaiera zaila izan zen. Nola gogoratzen ditu une haiek?

Ilegalizazioen garaia hasi zen orduan, tragikoa izan zen. Hurrengo hauteskundeetarako zerrendaburu moduan nindoan; besteren bat desatzen egongo zen agintaldia amaitu eta lekukoa uzteko, baina nik asmoa nuen herriaren alde lan egiten jarraitzeko. Pena handia izan zen.

2013
urtarrila | otsaila
Elgetako Espaloia
kafe antzokian

Elgetako

I. MONOLOGO MOSTRA



Urtarrilak 25 eta 26 - 22:30
SARA ESCUDERO
eta **MIGUEL IRIBAR**

'No controlo mi vida' 'Superdepredador'

Sara Escudero El Club de la Comediako azken irabazlea da.
Miguel Iribar Paramount Comedyko komikoa eta gidolaria.
Sarrera: 12-10 euro.

KAFE ANTZOKIA
espaloia
ELGETA

sarrerak erosteko: www.espaloia.com

HERRIAK

ANTZUOLA

Saharari laguntza emateko

- ▶ Anelkarrek elikagaiak bidaltzeko martxan jarri duen kanpaina amaitzear dago
- ▶ Herriko eskolan, Aixan Eroskin eta Kalebarren dendan jasoko dira jakiak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurten ere, Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteek kanpaina jarri dute abian Euskal Herrian. Antzuolan, eskolak, Udalak eta Anelkarrek bultzatzen dute kanpaina hori: *IX Piztu Itxaropena*. Eta laguntza hori bideratzeko asmoz, elikagaiak batzeko kanpaina martxa onean doala esan digu Kontxi Laskurainek, Anelkarko kideak: "Eskolan elikagai asko batu ditugu; dendetan poliki-poliki, baina batuaz goaz". Otsailean bidaliko dituzte Saharara Euskal Herrian batutako kaxa guztiak.

Saharari laguntzeko kanpaina, gaur amaitzen den arren, bihar eguerdira arte ere badute antzularrek aukera. Ondorengo

elikagaiekin lagundu daiteke: hegaluzea eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta eta lekaleak. Helduentzako fardelak eta konpresak ere jasoko dira. Elikagaiak Antzuolako eskolan, Aixan Eroskin eta Kalebarren dendan jasoko dira.

Umeak udan etxean jasotzeko

Uda sasoian umeak etxean hartuko dituzten familiak bilatzeko kanpaina ere bultzatu gura dute. "Jendea animatu nahiko genuke; haur horiendako aberasgarria eta oso positiboa delako Euskal Herrian egiten duten denboraldia. Oso erraz integratzen dira gainera Antzuolan", dio Laskurainek. Hala, aukera duten herritarrek animatu gura ditu Anelkarrek.



Saharar emakumezkoak, bilduta, Agüenit Dairan-en. | LEIRE UNAMUNO

LEIRE UNAMUNO | ANELKARKO KIDEA

"Ezer eduki gabe bizi daitekeela erakutsi didate sahararrek"

Leire Unamuno antzuolarra Anelkarko kide da. 2011ko Aste Santuan Saharara borondatzeko lankide gisa joan zen hamar egunerako. Bertan izandako bizipenak kontatu dizkigu:

Zelako esperientzia izan da?

Nire etxera etortzen zen neskatila saharararen familiarekin egon nintzen. Oso esperientzia aberasgarria izan zen niretako. Beste mundu bat ezagutzeko aukera izan nuen, bertan ikusitakoak asko harritu ninduen. Auserd-eko Wilayan-en egon nintzen, zehatzago esanda Agüenit Dairan-en.

Zelako herritarrekin topo egin duzu?

Basamortuaren erdian baldintza oso gogorretan bizi den herri batekin egin nuen topo. Euren herrialdetik bota zituzten eta orain beraiena ez den herrialdean bizi dira. Bertan jasaten dituzten baldintzak oso gogorrak dira. Oso gutxi ere bizi dira; izan ere, bertan ez dago lanik. Horrez gain, oso herri irekia dira, oso ondo tratatzen dituzte kanpotarrak eta euren bizimodua nolako den erakusten dizute.

Zer erakutsi dizue?

Ezer eduki gabe ere bizi daitekeela erakutsi zidaten, ez dugula gauza askorik behar zoriontsu izateko. Edozein detaile txikirekin



LEIRE UNAMUNO

pozten dira eta asko eskertzen dute. Horrez gain, bizitzak aurrean jartzen dizkigun oztopoei aurre egin eta aurrera egin behar daitekeela ere erakutsi zidaten, inoiz ez dela itxaropena galdu behar.

Nasra Antzuolan izan da.

Oso aberasgarria den esperientzia da, haur hauek ematen dutena guk eurei eman diezaiekeguna baino askoz gehiago baita. Nasrak 12 urte ditu, eta 5 urtez etorri da nire etxera. Hasieran denak harritzen zuen, argiaren etengailuak, iturritik ura irteteak, komunak... Euskara ikasi eta udalekueetan lagunak egin zituen. Baina ez da gehiago etorriko, 12 urteak bete ditu eta ezin izango da berriz ere *Oporrak* bakean programarekin etorri. Gauza asko beste modu batera ikusten erakutsi digu.



Saharar gazteak kanpamenduan eraikitako eskolan. | LEIRE UNAMUNO



Okendoko ludotekan jolasean aritu zen neska lagun taldea. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ARRASATE

Arratsalde magikoa Okendoko ludotekaren urteurrena ospatzeko

Erdiguneko ludotekak hamar urte egin ditu Okendon, eta festa giroan ospatu zuten gaztetxoek



Lilik eta Lalok publikoa magiaz kutsatu zuten. | IMANOL SORIANO

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Hamar urte bete ditu Okendoko Ludotekak, eta festa giroan ospatu zuten egubakoitz arratsaldean. Erguineko Usaetxeko eta Santamarinako ludoteketako neska-mutilek ere bat egin zuten erdiguneko festarekin eta ez zen barre eta ilusiorik falta izan.

Lehenengo hitzordua Kulturaren izan zen eta areto nagusia lepo bete zen *Lili eta Lalo, Loloren bila* kontakizunarekin gozatzeko. Hala eman baitzioten

hasiera Okendoko Ludotekaren 10. urteurren jaiari. Magia baliatuta txikiaren irudimenarekin jolastu zuten protagonistek eta ikusleen konplizitatearekin egin zuten tupust ordubeteko saio interesgarrian. Txalo zaparradarekin eman zioten amaiera ikusizunari.

Kulturartetik, Okendoko ludotekara lekualdatu ziren, askari goxoarekin disfrutatu eta lagunartean jolasean aritzeko. Ludotekako nagusienek, gainera,

hezitzaileei lagundu zieten, edariak-eta zerbitzatu. Egun boro-bila izan zen guztientzat.

Seber Altubetik, Okendora

"Okendon egon aurretik Seber Altuben zegoen ludoteka, 1993tik hain zuten. Kulturate egiteko lanak hasi zituztenean lekualdatu zen egungo tokira, duela hamar urte". Hala adierazi digu Txatxilipurdiko zuzendari Eneko Barberenak.

Urte guzti hauetan gauzak aldatu egin dira. Horren erakusgarria da, Berramesten proiektuan murgilduta daudela ludotekan, Mirari Arando hezitzaileak adierazi moduan: "Urte luzetan erabiliko eredu zaharkituta geratu da, eta Berramesten proiektuak autonomia gehiago ematen die neska-mutilei, bestean artean, ludotekan zer egin gura duten erabakitze orduan".

LEINTZ GATZAGA

Korrikaren aitzakiatan afari dotoreaz gozatu zuten gatzagarrek

Z.V.D.M. | LEINTZ GATZAGA

Herriko Korrika batzordeak deituta, afaria egin zuten Gatzagako kultura etxean egubakoitzean. Erantzun bikaina izan zuen deialdiak, 40 lagun inguru bertaratu baitziren lagunarteko afarira.

Lehen ekimenaz pozik

Antolatut duen aurreneko ekimenaren gaineko balorazio positiboa egin du Korrika batzordeak.

Rosa Urreta batzordeko kideak ere, kultura etxeko giro ona azpimarratu gura izan du: "Kantu

liburuak atera ditugu gainera, eta laguntzeko, bi musikari egon dira, trikitia jotzen Eskoriatzako Imanol eta biolinarekin, berriz, Gatzako Javi".

Gatzagako Korrika batzordetik gaineratu dutenez, otsailera begira beste ekimen bat prestatzen hasiak dira: "Beharbada umeak izango dira hurrengo txandan protagonista".

Martxoaren 21ean Korrika Gatzagatik pasa aurretik, beraz, egongo da zer egin batzordearen eskutik.



40 lagun inguru eseri ziren mahaiaren bueltan Korrika batzordeak deituta. | IMANOL SORIANO

DEBAGOIENA

Musean jokatzeko aste bukaera ezin hobea izan da

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Eguraldi narrasa tarteko musean jarduteko aste bukaera bikaina izan da eta halaxe egin dute hainbat herritan. Aramaioko Alaiak erretiratuen elkartean, esaterako, urteroko txapelketa izan dute. Zortzi bikotek jardun zuen nor-

gehiagokan; txapeldunak izan ziren Benito Abarrategi eta Jabier Uribarren; eta txapeldun-ordeak, Jose Maria Arias eta Angel Fernandez.

Euskal Herriko mus txapelketa Antzuolan eta Eskoriatzan, ostera, Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak jokatu dituzte. Eskoriatzan txapeldunak izan ziren Zubizarreta eta Roberto, eta Segurako kanporaketara joango dira horiek.

Antzuolan bi egunetan egin dituzte. Egubakoitzean, Gailurren, Maikel Ortiz eta Xabi Garcia Pascual bikotea nagusitu zen, eta atzo, Eperran bi bikote: Josu Larrea eta Iker Murua; eta Txomin Alberdi eta Iñaki Agirre. Datorren domekan herriko finala jokatu dute bost bikotek; irabazleak Segurako kanporaketarako sailkatuko dira.



Aramaioko Alaiak elkartean urteroko txapelketa jokatu zuten. | IMANOL SORIANO



Eskoriatzako Inkernun Euskal Herriko kanporaketa jokatzeko. | JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Kofradiako kideek urteko kontuak eguneratu dituzte

M.A. | ELGETA

Errege katolikoaren garaitik datorren ohiturari utsita meza, batzarra eta bazkaria izan zituzten atzo, hilak 20, San Sebastian kofradiako Elgetako eta Uberako kideek. Ia guztiak elkartu ziren, 24 noble, eta meza bukatutakoan

sakristian egin zuten batzarra azken kontuen berri eman eta altak eta bajak eguneratzeko. Hain zuzen, bi baja izango direla jakinarazi zuen kofradiako idazkari den Juan Ramon Irazabalek, eta horien ordez ez dela inor sartuko.



San Sebastian kofradiako kideak Elgetako sakristian elkartuta domeka eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL



Jean Louis David
Ile Apain

Urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra
Astelehen, astearte eta asteazkenetan

%20 ko
deskontua ile-apaindegian*

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Astehenetik Ostegunera:
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
Ostirala: 09:30 - 18:30
Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.

Nuria Rodriguez | Egoitek kirol enpresako kudeatzailea Musakolako kiroldegian

"Ohitura hartzea zaila da, baina gero kirolak engantxatu egiten du"

Pilates eta spinning dira egun jende gehien erakartzen duten ekintzak; hilabeteotan gimnasia abdominal hipopresiboa indartu gura du Aukeak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kirol arloan esperientzia luzea dauka Nuria Rodriguezek (Eibar, 1970), eta azken bost urteotan Egoitek kirol enpresako kudeatzaile moduan ari da lanean Musakolako kiroldegian.

Nola hasi zinen kirol arloko ikastaroak ematen?

Duela 20 urte aerobik ikastaroe-kin hasi nintzen eta geroxeago spinning-a heldu zen. Bi ekintza horiek arrakasta handia zuten eta hasieran horiekin egin nuen lan, Bergaran. Beranduago ekintza berriak iritsi ziren: body balance, body pump... Beti saiatzen gara azken tendentziak erabiltzaileen artean zabaltzen.

Zeintzuk dira egun arrakasta gehien duten ekintzak?

Pilatesak eta spinning-ak erakartzen dute jende gehien. 50 bat ikasle ditu lehenak eta 80 bat bigarrenak. Spinning-ak erresistentzia aerobikoa lantzea eta gantza erretzea ditu helburu. Pilates ikastaroetan egoten diren ikasle gehienak, aldiz, bizkarreko edo bestelako arazoekin datoz. Pilates

egiterakoan giharrak lantzen ditugu, gure gorputzaren pisua baliatuz. Gimnasia terapeutikoak eta uretako gimnasiak -aquagym- ere jende nahikotxo erakartzen du. Baina duela gutxi enteratu nintzen gimnasia abdominal hipopresiboa oso interesgarria izan zitekeela umea izan duten emakumeendako -zoru pelbikoa landu dezaten- zein prostata arazoak dituzten gizonezkoendako. Hala, hastapen eta hobekuntza ikastaroak jarri genituen martxan eta oraingoz, balorazio positiboa egiten dugu. **Ez dakigunondako, zertan datza gimnasia abdominal hipopresiboa?**

Tono abdominala eta zoru pelbikoa landu eta bizkarreko gainkargak askatzeko oso ariketa onak dira. Emakumeendako zoragarria da

"Berriendako saio pertsonalak egiten ditugu; gero taldean sartzen doaz"

-batez ere kirola egiten duten amandako-, eta gizonezkoen ere mesede egiten die. Arnasketa berezien bidez lantzen da; sekula egin ez duenak ez dezala beldurrik izan, berehala hartuko dio-eta. Horretarako daude hastapen saioak. Jende berria datorrenean saio pertsonal batzuk egiten ditugu eta gero taldean sartzen doaz.

Fitness gelaren aldeko apustua egin da. Zeintzuk dira berrikuntzak?

Aukeak fitness gela dohainik erabiltzeko aukera ematen die abonatuak. Gela horretan denetarik lantzen da eta norberak bere beharren arabera makinak aukeratzeko ditu. Orain ez dago begiralerik, baina saio berezi batzuk eskaintzen ditugu makinaren funtzionamendua modu zehatzean azaltzeko.

Zergatik gomendatuko zenuke kirola egitea?

Kirola egitea garrantzitsua da osasunerako, baina baita norbera psikologikoki ere ondo egon dadin. Kirola egiteko ohitura hartzea zaila da, baina gero engantxatu egiten du. Eskaintza falta, behintzat, ez da aitzakia izango.



Nuria Rodriguez Musakolako kiroldegiko fitness gela. | JOKIN BEREZIARTUA

Urte osorako zein bi hilabetetarako

Gimnasia abdominal hipopresiboa ikasturte guztikoa edo bi hilabetekoa izan daiteke. Bi hilabeteko ikastaroan hipopresiboa nola egiten diren irakasten da eta gero norberak bere etxean egin behar ditu. Diziiplina hori ez duten pertsonendako ikasturte osorako ikastaroa ere badago. Astelehen eta eguaztenetan batzen dira; hiru orduz egiten: 9:15ean, 17:30ean eta 20:30ean. Saio bakoitza ordu betekoa da eta abonatuak 37,60 euro ordaindu beharko dute hilean. Ez abonatuak, berriz, 47,60 euro.

Hipopresiboa aparte, beste hiru ikastaro jarriko ditu martxan Aukeak otsailean: patinaje ikastaroa -hastapena-, fitness gela ondo ezagutzeko hastapen ikastaroa eta gimnasia terapeutikoa. Horien gaineko informazio gehiagorako jo kiroldegira (943 77 16 77).

Ikasleengan gogoeta kritikoa bultzatzeko xedez, martxan da berriz ere Zineskola

Filmetan agertzen diren jarrerren gaineko gogoeta egiten dute ikasleek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Zineskola programaren beste edizio bat ari dira aurrera eramaten Arrasateko Institutuko eta Arizmendi Ikastolako 4. DBHko 4. mailako eta Lanbide Heziketako ikasleak.

Udaleko Ongizate Sailetik eskaintzen den zerbitzua da Zineskola. Maite Aizpiri Prebentzio teknikariak xehetasun gehiago eman dizkigu: "Duela hamarkada bat baino gehiagotik garatzen dugun programa da.

Helburua garbia da, ikasleen artean hausnarketa kritikoa egitea bultzatzea". Izan ere, ikasturtean



Bypass filmeko une bat. | BYPASS

zehar gai zehatzak jorratzen dituzte film ezberdinak ikusten dituzte ikasleek. "Amaia antzokian ikusten

dituzten pelikulek balio edota gizar-teko egoera jakinak lantzen dituzte. Horren ostean, unitate didaktiko batzuen bidez ikastetxeetan jorratzen dute gaia".

Hiru film apirilera bitartean

Azaroan hasi zen ikasturteko Zineskola; *Haur basatiak* izeneko filma ikusi zuten ikasleek.

Maite Aizpiririk adierazi digunez, programak aurrera jarraitzen du, eta urtariletik apirilera bitartean hiru film ikusiko dituzte ikasleek: hain zuzen ere, *Las Nieves del Kilimanjaro*, *Bypass* eta *Detachment*.



Lapurreta argazki-dendan

Urtarrilaren 16an goizaldean izan zen lapurreta Juan Manuel Berrueta argazki-dendan. Arrasateko Udaltzaingoa, Ertzaintzarekin elkarlanean, 19 urteko gizonezko bat atxilotu zuen. Herrizaingo Sailaren arabera, atxilotutakoak eta beste gazte batek estolda baten tapa saltokiaren erakusleihoaren kristalaren kontra bota, eta barruko hainbat artikulu lapurtu zituzten: bi argazki-kamera, ordenagailu eramangarri bat eta transformadore bat. Berruetak Goienari adierazi zionez, materiala berreskuratu bai, baina kamerak apurtu egin ziren atxilotetan.



lazko Inauteriak. | GOIENA

700 lagunentzako tokia Inauterietako bazkarian

Txartela erosteko azkar ibiltzea gomendatu dute

Z.V.D.M. | ARRASATE

Geroz eta gutxiago geratzen da mozorroak soinean ipintzeko. Otsailaren 9an ospatuko dira aratusteak, eta prestaketa lanetan murgilduta daude herritarrek.

Urtero bezala, pregoiak emango dio hasiera festari, eta, kalejiraren eta sari banaketaren ostean, bazkaria egingo dute Uarkapen. Dagoeneko salgai daude bazkari-ko txartelak Iluntz, Basati, Kajoi

eta Monte tabernetan, 20 euroren truke. Honela esan digu Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-k: "700 txartel ipini dira salgai, eta jendea animatuko genuke lehenbailehen eros ditzaten".

Kartel lehiaketa azken txanpan

Bestalde, Udalak martxan ipinitako Inauterietako kartel lehiaketa azken txanpan sartu da. Etzi izango da lanak aurkezteko azken eguna, 19:00ak baino lehen entregatu beharko dira BAZen.

Rosalinda ogi-puskaren istorioak, eguenean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Musikarekin hasi zuten Kooltur Ekintzako lagunek urtarrrila. Porco Bravo bizkaitarren punkak eta Xabi San Sebastian Banden doinu rockeroek girotu dituzte aurreko eguenak, arrakastaz.

Asteon berriz, musikak antzerkiari utziko dio tartea eta gaztetxera bertaratzeko direnek *Rosalinda, sous le ciel* antzezlanaz gozatu ahal izango dute.

Umore klabea

Rosalinda, sous le ciel obra Cristina Calvo eta Ekoma Teatroyen ikuskizuna da. Emakume baten istorioan oinarrituta kontatzen da. jendarteak ipinitako kanonetatik aldentzen den emakumea da Rosalinda eta arrazoi horregatik are pertsona bakarriago bilakatu den protagonista. Umore klabea kontatutako istorioa.

Eszenografia soil baten bitartez bere mundura garraiatuko du ikuslea protagonisak.

Cristina Calvoren lan hau, Bizkaiko diputaziori aurkeztutako *Barre eginarazteko artea* izeneko proiektu baten baitan kokatzen da antzezlan hau. Horrek beka bat irabaztea ekarri zion eta hiru urte egin zituen Parisen: "Eszena ulertzeko ikuspuntua guztiz eraldatu zitzaizkidan urte horietan ikasitako guztiarekin".

Askotariko gaiak gaurko Tokiko Gobernu Batzordean

Gaur 16:00etan Udaleko Tokiko Gobernu Batzordean zenbait gai landuko dituzte. Besteen artean, San Josepe Kalea berriro urbanizatzeko proiektuari eginiko alegazioei erantzuna emango zaie; neguko bideragarritasun plana aurkeztuko dute; edota udaltzainen lan-poltsa sortzeko hautaketa prozesuaren deialdia egingo da.

Erdi mailako taila ikastaroan izena emateko aukera

ARTEK antolatutako erdi mailako ikastaroan izena eman daiteke. Hilaren 28an hasiko dituzte eskolak eta 30 orduko iraupena edukiko du. Ikastaroen berri izan edo egin gura duten lana aukeratzeko, gaurtik aurrea pasa daitezke Nafarroa etorbidean elkarteak duen lokaletik. Izena emateko deitu 620 174 255 telefonora.



Besaide Mendizale Elkartearen batzar orokorra. | Z.V.D.M.

Zuzendaritza berritzea, Besaideren lehentasuna

Besaideko batzar orokorrean esan zutenenez, datozen bi hilabeteotan lan egingo dute helburua lortzeko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Besaide Mendizale Elkartearen urteko batzar orokorra egin zuten eguenean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

2012ari errepasoa

Juan Mari Lagunilla elkarteak idazkariak eta Aitor Zubiaga bokalag agertu ziren bazkideen aurrean.

Ohi bezala, aurreko akta irakurriz hasi zuten bilera eta aho batez onartu zuten bazkideek.

Segidan, 2012ko jardunari errepasoa egiten zioten. Hala, nabarmentzeko moduan, Mendi irteeren baitan, ekainean egin zen Aiba mendi martxak atentzia eman diela adierazi zuen Zubia-

gag; 170 pertsonak eman zuten izena, aurreko edizioetan baino gutxiagok, hain zuzen. "Ez dakigu izango den izenematea internetez egin behar zelako".

Mendi Hamabostaldiari dago-kionez ere, azken urteetan egingo gogoeta izan zuten hizpide. Azken bi edizioetan ekintza gutxiagotan zentratu izanak gauzak txukunago egiteko balio izan dietela adierazi zuten elkarteak zuzendaritzako kideek. "2012an gainera, inguruko edo gertuko gaiak landu ziren, eta pozik gaude emaitzarekin".

Iaz gainera, Mendi Tour festibala nobedadea izan zela gogoratu dute. "Besaide izan zen antolatetaren arduraduna eta

Udalak *Solitaire, Cold* eta *Fly or die* filmeen aurrekontuak hartu zituen bere gain. Froga izan zen eta harrera ona eduki zuen, izan ere, 250 lagunek ikusi zituzten filmak Amaian. Gainera, horrelako pelikulak ikusteko areto bikaina daukagu herrian".

Leixargarateko txabolaren inguruan ere, inbertsioetarako egindako esfortzuak merezi izan duela azpimarratu zuten zuzendaritzako kideek. "Negurako goxatu eta txukundu da, eta 63 erabilzaitetik 147ra igaro zen neguan".

Bazkide kopuruak behera

Batzar orokorrean azaldu zutenenez, azken bi urteotako bazkidetze

DATUA

138.600

EURO

Kopuru horretako arrekontua edukiko du Besaide Mendizale Elkarteak 2013an bere jardunari aurre egiteko.

joera beherazkoa izan da. Hain zuzen ere, 2012an 1.748 bazkide zituen Besaidek eta federatuak berriz, 943 ziren, 2011n baino zertxobait gutxiago.

2013ko erronkak

Oraindik zenbait kontu zehazteke duten arren, dagoeneko hasi dira 2013rako zenbait ekintza antolatzen Besaiden. Aurreneko hitzordua, asteburu honetan (urtarrilak 19-20) Formigalera egin behar zen eski irteera izango litzateke. "Bertan behera geratu da, baina".

Mendi bizikletez ere egin zuten berba, eta 2013an MondranBike soilik ez, bestelako ekintzak ere egingo dituztela adierazi dute: "Osasuntsu dago taldea eta".

Zuzendaritza berritzea

Amaitzeko, gai garrantzitsua landu zuten Besaideko batzar orokorrean. Izan ere, lau urtez jarraian zuzendaritzako kide berdinek lan egin ostean, zati bat behintzat berritu beharko litzatekeela gaineratu zuten.

"Jende berria ona litzateke Besaidereentzat. Badakigu lan talde guztiak ongi finkatuta daudela, baina batzorderako ideia berriak entzutea aberasgarria izango litzateke, denontzako".

Hedabideetan gaia zabaldu den arren, deialdiak "erantzun txikia" eduki duela onartu zuten egungo zuzendaritzako kideek. Horregatik, datozen bi hilabeteotan gaia lantzeko erronka hartu dute beren gain, "zuzendaritza osoa ez bada ere, erdia-edo berritu ahal izateko modua topatzeko".


Txikiak ere danbor-jole abilak direla erakutsiz

San Sebastian egunaren aitzakitan, ohikoa izaten da danborra joz ateratzea toki askotan. Argazkian, umezaintzako txikiak agertzen dira; urtebete eta bost urte arteko 200 neska-mutiko inguruk euren danborrak astindu zituzten egubakoitzean. Gogotsu, ikuskizun polita eskaini zuten.



Udalak Gerriko Berdea ibilbidea prestatu du

- ▶ Herria inguratzen du aisialdiguneak, natura eta ondare artistikoa lotuta
- ▶ Bederatzi kilometro inguru ditu eta oinez zein bizikletaz egin daiteke



ONARRIZKO IRUDIA: GEOGRAMA SL / BERGARAKO UDALA

Luzera: 9,225 km.

Desnibela: 175 m.

Nola egin: Oinez zein bizikletaz egin daiteke.

Denbora: 1 h 44 min. oinez; bizikletan, IBP index 27AB*.

FITXA

Ikurrak: Bai. Senderismoko ikur homologatuekin markatuta dago.

Ibilbidea: Agorrosin Ekintza Gunetik abiatuta - San Martzial - Surraga - Agirre - San Antonio - Artzamendi - Goiko Estaziñoa - Moia - Agorrosin Ekintza Gunea.

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gerriko Berdea, marka zuri berdez markatutako herri-xenda egin du Udalak. Hiru departamenturen, Turismo, Ingurumen eta Kirol departamentuen, elkarlanaren fruitu da. Gerriko Berdearen ibilbideak Bergarako hirigunea inguratzen du, aisialdirako espazioak lotuz eta natura kontserbatzeko eremuak zeharkatuz. Egileek ibilbidearen abiapuntu bezala Agorrosin Ekintza Gunea proposatu dute, baina bira horrek hainbat sarbide eta irtenbide ditu. Agorrosin Ekintza Gunean hasita, San Martzial aldera egiten du ibilbideak; handik, Surragara; hortik, Artzamendira joko da Goiko Estaziñoa igotzeko eta Moia baserri ondotik jaitsita, Agorrosin Ekintza Gunean amaitzen da.

Bederatzi kilometro pasatxo ditu eta ordu eta hiru laurden inguru behar dira bira guztia egiteko. Oinez ez ezik, bizikletan ere egin daiteke: oinez egiteko irteeratik San Martzial aldera jotzeko gomendatzen duten neurrian, bizikletaz egiteko beste aldera, Moiarantz hartzea gomendatzen dute.

Planoak kaleratu dituzte

Ibilbidea bera ez da berria herri-errendako, baina kanpotik etorzen diren bisitariendako proposamen polita da, herria beste modu batera ezagutzeko aukera eskaintzen duelako. Senderismoko ikurrekin markatu dute; markatze homologatua da, eta ez dago galtzeko biderik. Horrekin batera, biraren hasiera puntuan, Agorrosinen, panela ere jartzekoak ziren egunotan, ibilbidearen gaineko xehetasunekin.

Horrekin batera, Turismo Bulegoan eta Agorrosinen saltzen jarriko dituzten planoak ere atera dituzte, mendian ibiltzeko paper iragazgaitzez egindakoak. Ibilbidearen planoarekin batera, interesguneen gaineko informazioa jasotzen da, euskaraz eta gazteleraz. Udaletik aurreratu dutenez, Smartphonerako aplikazioa ere prestatzen ari dira eta Turismo Sailak laster izango duen webgune berrian ere egongo da biraren gaineko informazioa -ingelesez eta frantsesez ere bai.

Martxoan ospatuko den Zuhaitz Egunean inauguratuko dute Gerriko Berdea.

Interesguneen gaineko informazio osagarria

Udalak antolatutako ibilbideak hiru interes arlo batzen ditu eta kaleratu duten planoak hiru arlo horien gaineko informazioa ere jasotzen du. Goiauzoa eta San Martzial, biodibertsitatea eta ondare historiko artistikoa, hain zuzen.

Esaterako, San Martzialerako bidean aipagarriak dira Askatsuko iturria eta bere inguruetan kontserbatzen den hariztia eta San Martzial baselizaren inguruan atsedean lekua eta natura zein lekuko tradizioak ezagutzeko baliabideak daude. Aurrera eginaz, baserrien artean, ibilbideak



Txirrindulari bat Goiko Estaziñoan. | U. ASURMENDI

Surragako gurutzera eramango gaitu, ikuspegi panoramiko bikaina eskaintzen duen lekua da hori. Jaitsieran, 200 metrora dagoen Agirreko garaia ikusi ostean, Gabiria dorrera joan eta San Antonio auzora iritsiko gara.



Agirreko garaia. | NAIARA CORCUERA

San Antoniotik Ferrocarriles Vascongados trenbideak utzitako bidera igoko gara, ibilbidearen bigarren zatiari ekiteko. Bide eroso eta laua da, eskualdeko paisaien eta herriko kasko historikoaren ikuspegi ederrak gozatzeko aukera ematen

duena. Aipagarria da, baita ere, Ugasarri ingurutik kaleraino iristen den basoa. Trenaren geltokia egondako lekura iristean, Moia jauregirantz jaitsi eta herrira sartuko gara, ibilbidea Agorrosinen amaitzeko. Agorrosinek taberna-jatetxea, igerilekua eta bainuetxea eskaintzen ditu, gure aisialdi eguna borobiltzeko.

Horrez gain, prismatico batzuen laguntzaz, hegaztiak behatzeko aukera dago ibilbide guztian. Eta gida on batekin, bide bazterreko landare-espezie ugariak ere identifikatu ahal izango dira. Batzuk ohikoak dira; beste batzuk, oso bitxiak. Adibidez, gogortxua (*viburnum tinus*); Mediterraneo izaera nabarmena duen espeziea izanik, Artzamendin ugari daude.



Emakume bat defentsa pertsonaleko ariketak egiten. | GOIENA

Emakumeendako defentsa pertsonaleko eskolak Agorrosinen

Udalak Shotokan elkartearekin batera antolatu du ikastaroa, doan da eta hilaren 26an hasiko da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Emakumeendako defentsa pertsonaleko ikastaroa antolatu du Udalak Shotokan elkartearekin batera. Eskolak Agorrosinen izango dira eta lehenengoa urtarriaren 26an izango da, zapatua. Izan ere, eskolak hilean behin izango dira, zapatuetan, 10:00etatik 12:30era.

"Ez dira arte martzialak"

Shotokan elkarteko Josean Iñarrak emango ditu eskolak; emakumeendako oinarriko defentsa pertsonalean espezialista da hura. Iñarrak adierazi du oinarri-oinarriko ariketak egingo dituztela eta edonork har dezakeela

parte bertan: "Argi utzi nahi dugu ez direla arte martzialak. Hori oso bestelako kontu bat da. Ikastaroaren helburua da emakume batek etxean zein kalean erasoren bat jasaten badu oinarriko mugimendu batzuk erakustea defendatu ahal izateko", kontatu digu Iñarrak.

Gazte zein nagusiendako

16 urtetik gorakoendako ikastaroa da, baina adin horretatik aurrera edozeinek eman dezake izena: "Adin guztietan egiteko moduko ariketak dira, 18 urte izan edo 60". Ikastaroa doan da eta interesa duenak Agorrosinen eman beharko du izena.

Etxebizitza hutsen gaineko errenergua %150 igo du Udalak

A.B. | BERGARA

Aztiker enpresak egindako ikerketa baten arabera, Bergaran 334 etxebizitza huts daude. Hainbat eremu eta auzotan -Alde Zaharra eta Angiozar batez ere- horrek dakarren "degradazioa ekiditeko", Bergarako Udalak etxe hutsen merkaturatzea eta alokairua sustatu nahi ditu. Horretarako, etxea hutsik izatearen gaineko errenergua igoztea erabaki du. Hori horrela, ohiko etxebizitza ez diren errekargua %150ekoa izango dela onartu berri du 2013ko ordentzetan.

Plan Orokorrari erantzunez

Neurri horri esker, eremu degradatuak errekuiperatu eta eraikinen okupazioa handitu nahi du Udalak, lur berriak okupatu beharrik ez izateko, Bergarako Plan Estrategikoan jasota dagoen moduan. Udalak azaldu du etxe-

bizitza hutsa kontsideratuko dela urte bat pasata inor erroldatua ez dagoena.

Salbuespenak

Badira errenergua ordaindu beharrik izango ez dutenak; esaterako, zerga horren kuotan hobaria duten higiezin sustatzaileak, Udalaren baimenarekin lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzak badira edo heriotza baten ondorioz jasotako etxebizitzak kasuan. Salbuespen horien gaineko informazio guztia udal webgunean eskura daiteke.

Etxebizitza hutsen alokairua

Udalak gonbita egin die etxebizitza hutsen bat duten jabeek etxebizitza alokairuan jartzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Bizigune eta ASAP programetara bideratzea gomendatu die herritarrei.

Bertako euskara lantzeko ikastaroa antolatu dute

Jardunek kultura etxean daukan bulegoan eman behar da izena; matrikula hamar euro da

A.B. | BERGARA

Otsailean Bergarako euskara lantzeko ikastaroak jarriko dira martxan, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Jardun Euskara Elkartek elkarrekin antolatuta. Ikastarootan parte hartu nahi duten guztiek aurrez eman beharko dute izena.

Lehen ere horrelako ikastaroak egin izan direnez, oraingoan bi kategoriaren artean aukeratu beharko dute parte-hartzaileek: hasierakoa edo jarraipenakoa. Gutxienez, zortzi laguneko taldeak osatu beharko dira.

Akatsak zuzentzeko aukera

Ikastarook helburu bikoitza daukate: batetik, guraso, zaintzaile, begirale, entrenatzaile, eta abarri euren hizkuntza akatsak zuzentzen laguntzea; eta bestetik, umeen akatsak

zuzentzeko nagusiek erabil ditzaketen estrategia eta lagun-garriak eskaintzea.

Bi orduko bost saio

Eskolak Udal Euskaltegian izango dira. Talde bakoitzaren hasiera eguna eta ordua izena emateko epea bukatu eta taldeak osatu ondoren zehaztuko dira. Izan ere, ordutegiak sortzen diren taldeen arabera antolatuko dira. Hamar orduko ikastaroak izango dira, bi orduko bost saiotan banatuta.

Interesa duten guztiek urtarriaren 31, eguna, baino lehen egin beharko dute eskaera. Horretarako, Udal Euskaltegira dei egin dezakete (943 76 44 53), edo, bestela, izena emateko txartela bete eta Udal Euskaltegira eraman. Ikastaroan parte hartzeko hamar euroko matrikula ordaindu beharko da.



El Columpio Asesino taldeko kideak. | GOIENA

El Columpio Asesino taldearen kontzertua egunean Tartufon

A.B. | BERGARA

Iruñeko El Columpio Asesino taldeak Bergarako Tartufon amaituko du *Diamantes* azkeneko diskoa aurkezteko Euskal Herrian barrena egiten ari den bira.

Emanaldia 22:00etan hasiko da eta antolatzaileek adierazi dute 21:30ean autobusa irtengo dela Oxirondo azokako geltokitik. Sarrera 15 euro ordaindu beharko da eta plazak mugatuak dira.

Soinu ilunak

Albaro Arizaletak, Raul Arizaletak, Iñigo Solak, Kristina Martinezek eta Dani Uleziaek *Diamantes* diskoan El Colum-

pio Asesino taldea ezagun egin zuten ezaugarriak mantendu dituzte: soinu ilunak, tentsioa eta kutsu ezberdina. Hori guztia eta gehiago erakusteko asmoarekin datoz Tartufora.

13 urte taula gainean

Iruñeko taldea 1999an jaio zen eta urte hartan bertan grabatu zuten lehenengo maketa. Berehala erakutsi zuten estilo eklektiko eta berezia zekartela. Hamahiru urte hauetan lau disko kaleratu dituzte: *El columpio asesino* (2003), *De mi sangre a tus cuchillas* (2006), *La gallina* (2008) eta azkena, Bergarara ekarriko dutena, *Diamantes* (2011).

Bergara Garbiak poltsen protestarekin jarraitzeko eskatu du

Bergara Garbia plataformak prentsa ohar baten bidez adierazi nahi izan die herritarrei ez ditzatela kontuan hartu Udalaren eta Bilduren Gobernuaren "hitz politikak". "Atez atekoa inposatu digute eta ez diote beraiena ez den beste ezeri kasu egiten", diote. Balcoietako poltsen protestarekin jarraitzeko dei egin dute: "Poltsen protesta mantendu eta areagotu behar dugu -beste ekintza batzuk baztertu barik- gure eskaerei kasu egiten dieten arte".

Gazteendako puntu eta gantxillo ikastaroa antolatu du Jardunek

Jardun Euskara Elkartek puntua eta gantxilloa egitera animatu nahi ditu gazteak. Hala, ikastaroa antolatu du, eta domeketan izango dira eskolak, debalde, Zabalotegin (18:00-19:30).

Ikastaroan parte hartzeko Jardunen bulegora jo behar da izena ematera edo 943 76 36 61 zenbakira deitu.

Pilotalekuko tabernaren kudeaketa lehiaketara ateratu da

Astelehenean udalbatzak egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuten Udal pilotalekuko tabernaren alokairua arautuko duen baldintzen plegua. Interesatuak udal webgunean (www.bergara.net) *Kontratazailearen profila* atalean dituzte baldintzok. Proposamenak aurkezteko azkeneko eguna urtarriaren 30a da.

Joan den astelehenean lapurretan egin zuten bi etxetzitzatan

Ertzaintzak astelehenean, hilak 14, arratsaldean jaso zuen abisua. Ernai kalean -San Lorentzoko etxebizitza berriak- lapurretan egin zuten, bi etxebizitzatan. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, bietan ere lapurrek atea indarrez zabaldu zuten. Batean dirua eroan zuten eta bigarrean, gauzak tokiz mugituta zeuden arren, badi-rudi ez zutela ezer lapurtu.

'Zer da fracking?' hitzaldia dago bihar Irizar jauregian

Arabako Fracking Ez plataformak deituta *Zer da fracking?* hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, Irizar jauregian (19:00). Arabako plataformako kide den Azaitz Unanuek frackingaren gaineko argibideak emango ditu eta entzuleen kezka argitu.



Irakaslea eta ikasleak, eskola batean. | ELKAR HEZI

Ikastetxeek ate irekiak egingo dituzte egubakoitzean eta zapatuan

Aurrez, egunean bertan eta ondoren ere hainbat ekintza egingo dituzte

JULEN IRIONDO | OÑATI

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra arte da aurten matrikulazio kanpaina. Hori dela eta, ate irekiak egingo dituzte ikastetxeek datozen egunetan, eta beste hainbat gauza ere antolatu dituzte.

Txantxiku Ikastola

Egubakoitzean, hilak 25, egingo dituzte ate irekiak Txantxiku Ikastolan, 17:00etatik 19:00etara. 0 eta 6 urte artekoen gelak ikusteko aukera izango dute gurasoek, baita jantokia, informatika eta ingeles gela, adibidez. Bestalde, Potxin eta Patxin pailazoek emanaldia ere egingo dute, 17:00etan hasita hau ere.

Ate irekien aurretik, beste bi hitzordu: gaur -astelehena-, proiektu pedagogikoaren gaineko

bilera informatiboa; eguaztenean, berriz, *Nire haurrak jotzen du, nire haurra jotzen dute* hitzaldia, Nerea Mendizabal psikopedagoarekin. 18:00etan izango dira, herritar denentzat irekiak.

Elkar Hezi

Zapatuan egingo dituzte Elkar Hezin ate irekiak, Lehen Hezuntzako gunean, 10:30ean. Hainbat ekintza ere izango dira: musikoterapia 0 eta 3 urte arteko haurrentzako eta hauen gurasoentzako -ekintza hau irekia da-; sukalde tailerra (3-6); eskulanak (LHko 1. zikloa) eta masaje alternatiboak (2. zikloa). 12:00etan luncha egingo dute. Musikoterapiaren parte hartu nahi eta eskolara bisita egin ezinda gertatzen direnek izango dute aukera

ATE IREKIAK IKASTETXEETAN

Txantxiku Ikastola:

Urtarrilak 25, 17:00etan.

Elkar Hezi:

Urtarrilak 26, 10:30ean.

Errekalde:

Urtarrilak 26, 17:00etan.

Matrikulazio epea urtarrilaren 28an hasi eta otsailaren 8an amaituko da.

beste egun baterako eskatzeko. Bestalde, gaur hasita, astelehenetik eguenera ekintza bat -tailer, hitzaldi...- izango dute egu-

nero datozen bi asteetan.

Errekalde

Zapatua da Errekalden ere ate irekietarako aukeratutako eguna. Irakasleekin eskola bisitatzeko aukera egongo da -informatika gela, psikomotrizitaterakoa...-, eta bien bitartean zenbait taillerretan -txapak, bitxiak... egiten-jardungo dute geletan eskolako guraso eta ikasleek.

19:00ak aldera, gainera, bertso eta dantza saioa egingo dute 6. mailako neska-mutikoek, eta Urgainen abestia ere kantatuko du eskolako abesbatzak. Txokolate beroa ere prestatuko dute, amaieran denek hartzeko.

Urgainen Zuazola gunean ere egingo dituzte ate irekiak, hilaren 29an, 18:30etik aurrera.

PaP Ez! plataforma: "Ez gaituzte mehatxatu"

GOIATZ ARANA | OÑATI

PaP Ez! atez atekoaren kontrako Oñatiko plataformak gezurtatu egin du "mehatxatuak" izan direnik. Desegiteko erabakia "errepresalientatik" hartu dutela berretsi dute, eta hainbat hedabidek beraien ahotan esan ez dituztenak jarri dituztela kritikatuta dute. Hala jasotzen du eguen arratsaldean Bilduko udal taldearekin bilera izan eta gero alde biek adostutako testuak.

Era berean, Bilduko udal taldeak argitu du egunean bertan, goizean, burututako prentsaurrekoa eta bertan esandakoak egunkari batzuetan argitaratutakoaren inguruan izan zirela: "Ez genuen plataformaren gutunaren berri", argitu dute.

'Sua' film herrikoia eta haren gaineko solasa etzi, gaztetxean

Lapurdin XVII. mende hasieran izandako inkisizioan dago oinarrituta Eneko Aritzaren Lagunak taldearen filma. Inkisizioak 600 pertsona baino gehiago torturatu eta hil zituen bertan. Filma herrikoia da, Euskal Herriko ehunka lagunek hartzen dute-eta parte. Emanaldiaren ostean solasaldia egingo dute. Eguaztenean 19:00etan da hitzordua.

'Su haietatik ke hauek' liburua aurkeztuko dute kultura etxean

Su haietatik ke hauek izeneko liburua argitaratu du Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria) kazetariak, eta liburu horren aurkezpena egingo du etzi, eguaztana, kultura etxean, 19:30ean. Errauste planten eta hiri hondakinen gainean dihardu liburuan, eta errauste plantaren aurka egiten du. Oñati Zero Zabor taldeak antolatu du.

Zhang Yimouren 'Amor bajo el espino blanco', zineklubean

Zuzendari txinatarraren filma egongo da ikusgai egueneko saioan, 20:00etan. Kultura Iraultzaren garaian, hiritik mendiko herri urruneko batera joan behar duen -heziketa desberdina jasotzeko- ikasle baten istorioa kontatzen du. Etxean ez du egoera erraza, eta Jinglek badaki berak duela beraren eta familiaren ongizatearen erantzukizuna.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Igerilekuko dutxetarako sarbide berria



Ez ziren aiposegiak igerilekuko dutxetara sartzeko zeuden atea, eta, aldatetaren ostean, txukun geratu da sarbidea, argazkian ikus daitekeen moduan. Atearen bi orriak mugikorak ziren hasiera batean; bat finkoa eta bestea mugikorra jarri zuten gero. Baina sarbidea ez zen aproposa, ate ostean inor egonez gero kolpea hartzeko arriskua zuen-eta. Sarbide berriarekin dutxatzeko gunea kanpotik ez ikustea lortzen da, inorendako arriskurik gabe.



OIHANA ELORTZA

ESKORIATZA

Arana eta Intxaurtxueta asfaltatu beharra dagoela uste dute eskoriatzarrek

Udalak gertatutako 13 proiektuetatik bozkatuena izan da 883 punturekin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Arana kaleko 2. zenbakitik Intxaurtxueta auzoko Apotzagako bidegurutzerainoko errepide zatia konpontzea. Horixe da, eskoriatzarren ustez, lehentasuna izan beharko lukeen proiektua.

Hirigintza arloan datozen urteei begira Udalak gertatutako 13 proiektuak bozkatzeko aukera izan zuten herritarrek eguazte-nera arte; denera, 126 lagunek eman zuten iritzia Ibarraundi museoa jarritako erakusketan paperak edo Interneten zegoen inkesta betez. Esan bezala, erdiko kalea asfaltatzeko proiektua

nagusitu da, 883 punturekin. Lan horiek egin ahal izateko 96.000 euroko aurrekontua aurreikusi du Udalak.

Aparkalekua bigarren

Santa Mariñe plaza ondoan 120 ibilgailurendako aparkalekua egitea bigarren geratu da (781 puntu); eta erdialdea oinezkoendako egokitzea hirugarren (770). Gainerako egitasmoek sostengu txikiagoa jaso dute: Zaldibar antzokia jantzea (606), autobus geltoki berria Gorosarri plaza parean jartzea (580), Olazarko horma egonkortzea (570), Zaldibar kan-

potik urbanizatzea (473), Gaztañaduiko ur hornidura sareko hodia aldatzea (432), ur biltegietan eta kontagailuetan gailuak jartzea (427), kiroldegiko gimnasioa handitzea (426), San Pedro auzoa berritzea (377), Luis Ezeizan hobekuntzak egitea (335); udaletxeko harrera berritzea (66).

Beñat Herce alkateak azaldu du emaitzek isla izango dutela aurrekontuetan; ezustekorik ez bada, hilaren 29an egingo den bilkuran onartuko dira. Urtarrilaren 30ean, berriz, emaitzak eta aurrekontuak aurkeztuko dizkiete eskoriatzarrei.

ARETXABALETA



Danborrak astindu zituzten

San Sebastian egunaren harira, danborrak gogoz astindu zituzten egubakoitzean Aretxabaletako Kurtzebarriko neska-mutikoek. Eguraldiak hala aginduta, Iturrigorri pilotalekuan egin behar izan zuten; batean edo bestean, Sarriegiren martxa ederto jotzen dutela agerian geratu zen. Kurtzebarri ez ezik, Arizmendiko Basabeazpin ere danborrada egin zuten San Sebastianen omenez; Pausoka haurreskolan, berriz, gaur goizean izango da. Bestalde, Eskoriatzan, Luis Ezeizan ere danbor hotsak entzun ziren egubakoitzean.

Diputazioak neurriak hartu arte itxita jarraituko du bidegorriak

M.B. | ESKORIATZA

Joan den asteko euriteen ondorioz, Intxaurtxueta eta Olazar auzoak batzen dituen bidegorri tartean lur-jausiak izan ziren, eta, arriskua egon zitekeela ikusita, tarte hori ixtea erabaki zen.

Udalak gogorarazi du ingurune horretan behin baino gehiago

tan gertatu izan direla luiziak, eta, Diputazioak horiek ekiditeko neurriak hartu bitartean, itxita jarraituko duela bidegorriak.

Diputaziotik jakinarazi digutenez, datorren astean harriak eta lurra erretiratuko dute, eta "egunerako edo" bidegorri zati hori zabaltzeko moduan egongo da.



Bidegorria itxita. | AMAIA TXINTXURRETA

Gaur jarriko dituzte salgai Aratusteetako herri bazkarirako txartelak, 18 eurotan

M.B. | ARETXABALETA

Aratusteetako bazkarirako txartelak salgai daude gaurtik; 600 txartel jarri dituzte salgai: hel-duena 18 eta umeena 13 eurotan. Menuari dagokionez, nagusiek patatak errioxar erara eta oilasko izango dute eta umeek, makarroiak eta oilaskoa. Kopak ez dira menuan sartzen.

Interesatuak Arkupeko bigarren solairuko zuzendaritzaren bulegotik pasa behar dute, honako ordutegian: astelehenetik eguenera 08:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 17:00etara; eta egubakoitzean 08:00etatik 14:00etara. Koadrilaren izenarekin batera, joango direnen izena ere eman beharko da.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA



Juanjo Peciña, Arabako beste sagardogile bat eta Goseko musikariak eguenean, txotx egiteko gertu. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Gosek egin zuen txotx eguenean Arabako sagardo berriari ongietorria egiteko

Iturrieta sagardotegia goraino bete zen, Gasteiztik etorritako autobus eta guzti; aurtengo sagardoa "edateko oso erraza" dela dio Juanjo Peciñak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

"Ohore eta plazer bat da guretzat gaur hemen egotea. Gipuzkoarrek uste dute Gipuzkoan bakarrik egiten dela sagardoa, baina Araban ere badago. Askotan urrutira joaten gara txotx egitera eta ondo dago jakitea etxean bertan ere sagardo ederra dugula. Egari ere bagara eta beraz, bagoaz txotx! egitera". Hitz horiek izan zituen joan den eguenean Ines Osinaga Goseko abeslariak Arabako sagardo berria dastatu ostean. Aurtun ere goraino bete zen Iturrieta sagardotegia txotx denboraldiari ongi etorria egiteko. Aramaioar ugari, baina baita Arrasateko jende nahikotxo ere. Gasteiztik ere autobus bat etorri zen. Jende asko, eta horren adierazle garbia da sagardoa dastatu ostean mokadutxoa hartzea eginbehar zaila bihurtu zela.

Arabakoaren aldarrikapena

Txalaparta doinuekin hasi zen txotx denboraldia irekitzeko ekitaldia. Gero, Aramaioako Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsolariek

bertso bana kantatu zuten eta ondoren Juan Jose Peciña Iturrietako sagardogileak hartu zuen hitza: "Inoiz ez dut berbaldia prestatzen eta aurtengoa ez da

ezberdina izango. Arabako sagardogileen ordezkari haren dugu eta baita Goseko musikariak ere. Eskerrik asko etortzeagatik eta ondo pasa!".

Peciñaren berbaldi motzaren ostean Ines Osinaga Goseko abeslariak ireki zuen kupela. Arabako sagardoa aldarrikatu zuen Osinagak. Gero herritar guztiek hiru kupeletako sagardoa dastatzeko aukera izan dute, giro ederrean. Jatekorik, noski, ez zen falta izan: patata-tortila, txorizoa, saiheskiak, berakatz-zopa... Batek baino gehiago ez zuen afalduko gero.

Sagardoa, "edateko oso erraza"

Aurtengo sagardoa "edateko oso erraza" ei da Peciñaren arabera: "Publiko orokorrarendako sagardoa da. Suabeagoa, erraza. Gure helburua da sagardo mundura jendea erakartzea, publiko guztia errendako sagardoa egitea". Sagardogile arabarrak 16 urte daramatza Iturrietan, eta krisi garaia den arren, euskaldunok sagardo denboraldiari erantzun ona emango diogula uste du.

ESANAK

"Edateko oso erraza da, subea. Publiko orokorrarendako sagardoa da"

JUAN JOSE PECIÑA | ITURRIETA

"Urruti goaz txotx egitera, baina etxean bertan sagardo ederra dugu"

INES OSINAGA | GOSE

ANTZUOLA

Korrika 18ren laguntzaile egiteko dei egin diete herritar guztiei

Kultura etxera jo eta 12 euroren truke Korrikari laguntza eman diezaioke antzularrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Korrikaren 18. edizioa martxoaren 20tik 21erako gauean iritsiko da Antzuolara. Elosutik sartuko da gaueko hamabietan, Bergara jaitsiko da, Antzuolara joango da ondoren eta Zumarragan irten-go da goizeko ordu biak inguruan. Gero, Udanara abiatuko da, eta Oñatira jaitsi. Egun horren aurre-

tik, baina, Korrikari laguntzeko hainbat modu daudela gogorazi dute antolatzaileek. Kilometroak ere eros daitezke dagoeneko. Korrikari laguntzeko hainbat modu daude; esaterako, 12 euroren truke Korrika laguntzaile egin daiteke. Trukean pin bat eta txartel bat jasoko dute laguntzaileek; txartelarekin deskontuak

izango dituzte Debagoieneko eta Euskal Herriko hainbat komertzioetan. Interesa dutenek Antzuolako kultura etxera jo beharko dute. Kilometroa diruz laguntzeko eskaerak egiteko epea ere zabalik dago. Korrika batzordeetan izena eman daiteke, eta baita korrika18debagoiena@gmail.com-era idatzita ere.

Plastikoa batuko da bihar

Baserrri eta landa inguruetan sortzen diren plastikoa batuko dira bihar, urtarrilak 22. Ekarpengune ondora eraman behar dira plastikoa. Gogoratu behar da, baina, plastikozko sokak ez dituztela batuko.

ELGETA

Martxan da herri mailako emakumezkoen futbito txapelketa ere

Zapatuan jokaturako partiduan Gazteak taldeak 6-1 hartu zuen mendean Etxaon

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zapatuan, 16:30ean, jokatu zen emakumezkoen txapelketako lehenengo futbito partidua. Jende kopuru politak jarraitu zuen norgehiagoka harmailetatik. Kantxan, berriz, Gazteak eta Etxaon taldeko kideak; hamar lagun Gazteak taldean, eta zortzi Etxaon taldean.

Norgehiagoka 6-1 emaitzarekin amaitu zen. Gazteak taldean Nagore Ojangurenak eta Leire Urgoitiak bina gol egin zituzten, eta bana Janire Lazkanok eta Nagore Moralesek. Etxaon taldeak gol bakarra egin zuen, eta Eli Romerok egin zuen.

Beste bi taldek hartuko dute parte herri mailako emakumez-

koen futbito txapelketan: Bajaan eta Bandoleira taldeek, hain zuzen ere. Bajaan taldea hilaren 26an estreinatuko da, eta Bandoleira taldea otsailaren 2an.

Gizonezkoen txapelketa

Aste bukaera honetan gizonezkoen txapelketako hiru norgehiagoka jokatu dira. Astuan Billa taldeak 6-4 irabazi dio Jaitxo taldeari; Tzibaz United taldeak 12-6 irabazi dio Nahaste Borraste taldeari; eta Kokotxa taldea 10-5 gailendu zaio Txapelari.

Aste honetan golegileak izan dira Josu Mañarikua eta Iraitz Bolinaga lau golekin, eta Javi Gamarra eta Aitor Gorostiza hiruna gol eginda.



Zapatuan jendea harmailetan emakumezkoen partidua ikusten. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Gogotsu astindu zituzten danborrak herriko txikiek

Aterruna aprobetxatuta plazan elkartu ziren

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean, hilaren 18an, ospatu zuten San Sebastianen omenezko eguna herri eskolako neska-mutikoei. Bazkalostean elkartu ziren San Migel plazan, eta aterruna aprobetxatuta bertan astindu zituzten danbo-

rrak: *Sarriegiren martxa* eta beste hainbat doinu jo zituzten. Sei ikasle daude eskolan, baina gaixotasunak eta ezin-etorriak tarteko, hiru bakarrik elkartu ziren irakasleekin batera. Hala ere, umore ona ez zuten galdu eta pozik ospatu zuten.



Eskolako umeak eta irakasleak danborrak eskuetan dituztela. | M.A.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



DESKONTUAK



Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10eko deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10eko beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15a zerbitzu guztietan.



Imprespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara

- %5eko deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Biotika
Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate

- % 2a gasolindegian erregaia erosita.
- % 2a dendako produktuetan.



Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15eko produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreazou Auzoa 10 - Oñati

- %10eko deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50eko deskontua lehenengo kontsultan.

Gutziz Eder
Kalebarria 29
Oñati



- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5eko deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



Caravanas Oñate
Otañadi Zuhaztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketan egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Oñati Garajea
Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Multiópticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara

- %15eko deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

Eskaintza gehiago:

www.goienakluba.com

ZOKKETA ETA PROMOZIO BEREZIAK

ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean URTARRILEAN honakoa zozketatuko dugu.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaur ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantarekin eta spa zirkuitua).



Urtarrileko irabazleen berri otsailaren Tean emango dugu.

Zorte on!

URTARRILEKO SARIAK ETA PROMOZIOAK

- Pamiela: **Liburuak:** Joxe Mari Iturraldearen "Frantzia je táime esaten dute" Patxi Zubizarretaren "Hiru gutun Iruñetik"
- **Erremeixuak** DVDa
- Argiako jokua: **Nairobiarra**
- Goiena: **Pendrive**
- **Arrikutz** Kobetarako sarrerak
- Amaia antzokian: "Printzea eta Ahatea" **antzerkia**. 2 sarrera (urtarrilaren 28an)
- Espaloia Kafe Antzokian: **Sara Escudero Eta Miguel Iribar**
Monologo Mostra: 4 sarrera.

Espaloia Kafe Antzokia: Ernesto Sevilla "Monologos Coconut"

Sarreren irabazleak: Mikel Lopez de Arkate eta Jesus Belamendia Agirre

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzue datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Parte hartzeko

SMS: KLUBA [sariaren izena]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08 zenbakira, saria adieraziz

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.
- Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera.



Urteko kuota: 50 €.
Tel.: 943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta mailaz igotzeko borrokan sartu da osterera ere

- ▶ Mondrak garesti ordaindu zituen egindako opariak
- ▶ 2-0ekoaz Aretxabaletak ez zuen errematatzen jakin
- ▶ Hernani liderra beherantz dator, eta lau puntura dago



Aretxabaletako jokalaria Aitor Perezen gola ospatzen –arratsaldeko lehenazaleen ondo

EMAITZA

ARETXABALETA

2-1

MONDRA

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Agirregabiria, Gorosabel, Etxabe, Arriaran, Kerman, Igartua, Orueta (Eraña, 45. min), Perez, Oinatz (Apraiz, 62. min), Hernandez (Badillo, 55. min), Ander (Urzelai 11. min).

Mondra: Ander Ruiz, Kevin (Markel, 82. min), Zabaleta, Erik, Iregi, Iker Lopez, Txonan (Azkarate 67. min), Gorka Dueñas, Zaitegi, Urizarren, Aizpurua.

Beste: Sarrera polita Ibarren, 400 lagun bai harmailetan.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Irabazlea zapore gaziaz –sufritzen amaitu zuelako– eta galtzailea zapore gazi-gozoaz –galdu arren aurpegia eman zuelako. Halaxe erretiratu ziren Aretxabaletako eta Mondrako ordezkariak atzo. Izan ere, Ibarren batu ziren zaleek partidu nahasia ikusi zuten, joan-etorri askokoa, eta filmaren amaiera aurreikusteko aukera gutxi ematen zuena.

Jokoa baino borroka izan zen berdegunean, bi taldeen erdialdekoen lehia, jokoa menperatzeko. Aretxabaletak ondo asmatu zuen Mondraren atzealde itotzen; defentsek nekez ateratzen zuten baloia ondo jokotuta, Lutzok nahi izaten duen moduan –duela ez asko talde zuri-morean agindua ostikoa eman eta aurrera joatea zen. Baina, atzealdetik hasi nahi horretan tematuta, behin baino gehiagotan

huts egin zuten. Gol aukeraren bat izan zuen Aretxabaletak –Aitor Perez bazebilen abisua ematen– eta beste atean Zaitegik buruz ere egin zuen erremate garbiren bat. Baina, Mondra ondoen jokatzen zebilenean Aretxabaletak eman zuen lehen kolpea (29. minutuan); hain zuzen, lehenago abisua eman zuen Perezek maisuki loratu zuen baloia, Mondrako atzealdean egindako opari baten (1-0).

Gola egin arren, sufritzera

Bigarren zatia hasi eta gutxira etorri zen zuri-moreen bigarren oparia. Markaketan huts bat eginda Oinatzek egindako burukada –bakarrik zegoen– ondo geratu zuen Ruiz de Azuak, baina aldaratzea Perezek jaso zuen, bigarre-na egiteko (2-0).

Partidua Aretxabaletaren alde jarri zen nabarmen, jokoan eta emaitzean, eta Albistegiren mutilen 3. gola gertu zegoela zirudienean –Apraizek aukera ederra barkatu zuen Mondrako atezainaren aurrean izandako aurrez aurrekoan– Iker Urizarrenek bikain errematatu zuen buruz eskuinaldetik egindako erdiraketa ona (2-1, 75. minutuan). Mondrak ez zuen aitzakia gehiago behar gora etortzeko, eta gainera Aitor Perezek bigarren txartel horia ikusi eta aldagarako bidea hartu zuen handik bi minutura –lehenago Lutxo Iturrino egotzi zuen epaileak, protesta egitearren.

Egoera horretaz baliatzen ahalagindu zen Mondra, gogo handiaz, baina zelan egin jakin barik. Gainera, Aretxabaletak duen puntu indartsuetako bat atzealdea da, eta Etxabek, Kermanek, Arriarane eta Gartzik, piboteez lagunduta, behin eta berriro zapuztu zituzten Arrasatekoen eraso ahalaginak. Pentsa ze gogo zuen Mondrak, luzapenean atezaina kornerra errematatzen igo zela; ahalegindu beharra zegoen.

Mondra ondoen zebilenean egin zuen UDAk 1-0koa

Sufritu arren, Aretxabaletak ondo eutsi zion partiduari

UDAk Mondrari egindako oparia urteurrenanean

Derbietan ohi moduan Aretxabaletako eta Mondrako zuzendaritzako ordezkariak bazkaria izan zuten domeka eguerdian, derbiaren aurretik.

Urte batzuetan bi klubuen arteko harremanak ez dira onenean egon, baina atzean utzitako sasoiak dira horiek, eta domekan Aretxabaletak detaile polita izan zuen Mondrarekin, 100. urteurrena dela-eta tarta hau izan zuten postterako.



ANDER RUIZ DE AZUA | MONDRAKO ATEZAINA

"Gol gehien egiten dituen taldeetako bat gara, baina erraz jasotzen ditugu"

Pare bat gol aukera garbi ondo geratu zituen Arrasateko atezainak, batez ere Apraizekin izan zuen aurrez aurrekoa.

Partidu serioa egin du gaur Mondrak, baina ez da nahikoa izan.

Lehenengo zatian ondo presionatu digute baloiaren irteera, hor akatsa batzuk izan ditugu, eta akatsetak batean etorri da euren lehenengo gola. Bigarreana ere gure huts bat izan da, eta dagoeneko



badira batzuk.

Huts horiek garesti ari zarete ordaintzen.

Bai, gol gehien egiten dugun taldeetako bat gara, baina baita gehien jasotzen dituenetako bat ere. Aurrean asmatu, eta atzealdean sendoa-goa jokatu beharko

dugu.

Sailkapena oso estu dago.

Datorren astean Trintxerpen irabazi egin behar dugu lasaitasuna hartzeko.

OXEL APRAIZ | ARETXABALETAKO AURRELARIA

"Garrantzitsuena garaipena da, baina atezain aurrean huts egin dudana..."

Partidua irabazita ere, Aretxabaletako aurrelari arrasatearra ez zen pozik partiduan egindakoaz. Eta ia dena egin zuen ondo, jokaldi erabakigarri batean huts egin zuen arte.

Garaipenak zapore gozoa utziko zizun, baina 3-0koa egiteko izandako gol aukeragatik haserre?

Apur bat bai, onena izan da taldeak irabazi egin duela. Baina, gol hori sartu izan banu taldeak ez zuen horrenbeste sufrituko, eta partidua



dezente hobeto amaituko genuen.

Dena dela, garaipen batekin hasi duzue bigarren itzulia.

Hiru puntu garrantzitsu dira horiek. Bai, oso inportanteak dira puntu hauek, izan ere, asteburuan Hernanik berdindu egin du, eta Real

Unionek galdu. Hala, liderra lau puntura dugu orain.

Itzuli luzea geratzen da.

Bai, oso luzea izango da, eta gogorra, maila oso parekatuta dagoelako.

MIKEL ARISTIRI ELKARRIZKETA | Euskadi taldeko ziklstak profesionalekin jardungo du | **27**



dan. | JOSETXO ARANTZABAL.



Mondrako Ainhoa Alonso baloia eskuratzeko ahaleginetan Mondrako eta Aurrerako jokalaria. | JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA

Berdinketarekin orain arteko bolada txarrari buelta ematen hasi gura du Mondrak

Atezainak ezin izan zuen jokatu atzo eta haren ardura Vanesa jokalaria hartu zuen; lan txukuna egin eta gol bakarra sartu zioten

EMAITZA
MONDRA
1-1
GASTEIZKO AURRERA

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Azken asteotako bolada txarrari buelta eman guran atera ziren Mondrako neskek atzo, zelaira. Eta aurrez aurre Gasteizko Aurrera, sailkapenean puntu kopuru bikoitza duena. Indartsu

atera ziren arrasatearrak eta lehen minutuetan bi gol aukera polit izan zituzten. 21. minutuan iritsi zen gola; korner baten ostean areaz kanpotik jaurti Melanik eta barrura (1-0). Eta markagailuan aurretik zirela joan ziren atsedendira.

Zoritxarreko jokaldia

Bigarren zatian gora begira atera ziren Aurrerako neskek eta Mondra kontrara jolasten. Hala, gol aukera pare bat izan zituzten kanpokoe; baita iritsi ere 41.

minutuan zoritxarreko jokaldi baten ostean. Jaurtiketa indartsu baten ostean atezainari ihes egin zion eskuetatik baloiak eta barrura. Esan behar atezain lanetan Vanesak jardun zuela, Oihana Aldaik ezin izan zuelako jokatu; baita lan txukuna egin ere hark.

Azken minutuak sufritzen pasatu zituzten etxeoak, puntu bakarrak ihes egiteko beldurrez. Berdinketarekin konfiantza hartu gura dute Mondrakoek, eta puntuak eskuratzen hasi.



Arratsaldeko protagonistetako bat, Aitor Perez. | J.A.



Erik eta Lopez, Oinatzekin batera baloia errekupeartzeko lehian. | J.A.



Aretxabaletako Hernandez erdiraketa egin berri, Jon Zabaleta segika duela. | J.A.



ERREGIONAL PREFERENTEA

Etxean galdu barik jarraitzen du Antzuolak

Lider izatea ez da samurra izaten, atzekoen presioak urdurasuna sor dezakeelako, baina Antzuola oso eroso dago, eta azken bederatz jardunaldiotan ez du partidurik galdu. Hala, bosgarren postuan dagoen Ordizia hartu zuen etxean zapatuan, eta irabazi (1-0). Zaleen babesari esker etxean galdu barik jarraitzen du, eta puntuak batzen; atzetik jarraika datorkion Getariako Ketari bost puntu ateratzen dizkio.

IMANOL SORIANO

EBA MAILA

Beteranotasunak bakarkako talentua gainditzien duenean

- ▶ EHUk etorkizunean jokalaria onak izango direnak ditu
- ▶ Lehenengo laurdenean egon ziren indarrak parean
- ▶ Oñatikoek ligako zortzigarren garaipena batu dute

EMAITZA

NATRA OÑATI

77-60

EHU ARABA

XABIER URTZELAI | OÑATI

Urte gutxi barru baliteke zapatuan EHU Araba taldean zeuden hainbat jokalaria saskibaloiairen gailurrean ikustea. Arabako taldeak Baskoniaren harrobiaz egiten du lan, eta etorkizuneko jokalaria izan daitezkeenak bertara bideratzen dituzte, lehiatzen ikas dezaten. Martinez, Gacic, Malmanis, Bordignon... Bihar edo etziko izarrak izan daitezke, baina zapatuan ezer gutxi erakutsi zuten, Oñatiko *beteranoek* Zubikoan legea ezarri zutelako.

Talde gaztea du EHU Arabak. Kapaz dira bost minutuan bakar-kako hainbat jokaldi on egiteko, hori egiteko moduko kalitate oneko jokalaria dituztelako. Baina gaur egun Natra Oñatiri

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Gamarra, Zeziaga, Ander Gartzia, Josean Cavada, Zabaleta, Kintana, Iban Lizarralde, Xabier Osa, Iñigo Biain, Ibai Osa

Ehu Araba: Iñigo Barandica, Jon Saenz, Carlos Martinez, Markel Lopez, Imanol, Mascariño, Gacic, Sergio Gil, Arregi, Malmanis, Ndongala, Mordignon.

Beste: Sarrera ona Zubikoan, nahiz eta igarri zen Realak ordu berean jokatzen zuela.

DATUA

8

GARAIPEN

Lehenengo itzulia amaitzeko partidu bat geratzen denean, Natra Oñatik bederatziz partidutatik 8 irabazi ditu.

irabazteko hori baino gehiago behar da; oraingoz, ez dute oñatiarrei min egiteko talde-perfila-adi itzuliko partiduan.

Lehen laurdenean, parean

Partidua hasi eta lehenengo laurdenean parean egon ziren indarrak. Talde bakoitza bere jokoa ezartzeko lanean, markagailuak bi puntuko aldea baino ez zuen erakutsi laurden bukaeran, etxeko alde.

Bigarren laurden hasieran kanpotarrak hainbat minututan azukre ontza moduan urtu ziren, eta *gorritxoek* tarte txikian 12 puntuko abantaila lortu zuten. Momentu horretan arabarren entrenatzaileak botatako oihuak -ez dugu idatziko- erakusten zuten ez zela onargarria modu horretan kontzentrazioa galtzea, eta bigarren laurdena amaitzerako *txukundu* egin zuten markagailua, 39-31.

Minutu tontoak

Bigarren zatiaren hasieran, berriz, lehenago aipatutako minutu ton-to horiek Oñatikoendako izan ziren. Nahi baino partidu gehia-



Josean Cavada arabarren artean barneraketa egiten. Atzean Zeziaga zain; Arrasatekoak o

gotan izaten dituzte oñatiarrek halako joko-txakalaldiak. Ez dute askorik irauten, baina zapatukoa nahikoa izan zen EHUkoei arnas apur bat emateko (39-35), eta markagailuan parekatzeko kapaz zirela sinestarazteko.

Baina ume bati gozokia erakutsi eta ostera ere poltsikora sartzea modukoa izan zen. Hala, Gorka Kintanak zapuztu zuen arabar *gaztetxoek* ametsa, hiruko eder bat (42-35) eta desagertu da gozokia. Hortik aurrera Natra Oñatik ez zuen aukera txikiena ere eman. Josean Cavada min hartuta dagoen de la Iglesiaren paperean, eta Ander Gartzia saskiratzaile nagusi moduan, gai-

nontzekoek ere minutu onak izan zituzten kantxan -Zaleen gozameneko geratu zen Bergarakoak 57-44koan egindako matea, hirugarren laurdena amaitzeko 15 segundo falta zirenean.

Hala, laugarren laurdenak ez zuen partidu hasieran aurreikusi zitezkeen emoziorik izan -azken batean, EHU hirugarren dagoelako sailkapenean. Hala, Oñatikoek ligako zortzigarren partidua irabazi zuten (77-60).

Argazki lehiaketa

Saskibaloia sailak argazki lehiaketa jarri du abian. Hala, zapatuko partiduan zehar ateratako argazkiak jaso nahi dituzte, sas-

LEHEN NAZIONALA

Partidu beroa izan zen Iturripen, zapatuko denboraleari aurre egiteko

MU-k azken baloi jabetzan galdu zuen partidua 74-75eko emaitzarekin

JAGOB DOMINGO | ARRASATE

Oso gogotsu hasi zuen Arrasateko taldeak zapatuko hitzordua. Iturripeneko kantxara Gasteizko Aranberri taldea gerturatu zen eta lehen laurdenean ikusitakoagatik bazirudien partidu erosoan izan behar zela. Baina ez.

Lehen zatian, MU-koak erasoan oso fin eta azkar ibili ziren, Aranberri antolatutako defentsa gaituz. Kantxa osoan presioa egiten saiatu ziren arabarrak, baina Arrasatekoek presio hori gaituzten zuten momentuan min egiten zieten erasoan; horretaz

jabetuta, lehen laurdena 24-21koa izan zen.

Bigarren laurdenean bi taldeek argi utzi zuten ez zutela partiduaren erritmoa jaitziko. Saskiratze asko ikusi ziren Iturripen eta etxekoek 11-0ko partziala lortu zuten, Barberoren errebote eta Aranzabalen puntu azkarrei esker. Defentsan lorturiko erreboteek korrika egitea ahalbidetzen zuten; horrela jokatuta eroso sentitu zen MU. Hala, partidua bideratuta utzi zuen etxeko taldeak, atsedenaldira 49-37ko emaitzarekin erretiratu ziren-eta.

Egindako lana, hankaz gora

Hirugarren laurdenean gauzak dezente aldatu ziren. Aranberrikoak defentsan oso agresibo kan-txaratu ziren eta horrek etxekoek saskiratze-kopurua asko murriztu zuen. MUK ezin izan zuen bere jokoa egin eta horren ondorioz erasoan huts asko egin zituzten.

Partiduaren azken 10 minutuak hasi orduko, etxekoek abantaila 3 puntutakoa zen eta tentsazioak ez ziren oso positiboak: azken laurdenak gorabehera handiak eta puntu gutxi izan zituen

(etxekoek 12 puntu egin zituzten). Jokoa moteldu egin zen, tartean epaileen erabaki eztabaidagarri batzuen ondoren, eta Larrategiren mutilak partidutik irten ziren. Atzean erraztasunak eman ondoren erasoan kontrol falta zen nagusi. Hala ere, partiduko azken minutura markagailuan aurretik heldu ziren, eta partidua erabat definitzeko jaurtiketa libre larregi huts egin ondoren, azken baloi jabetzak partidua erabaki zuen.

Aranberrikoak kementsu irten ziren azken 20 segundoei aurre egitera, partidu osoa atzetik ibili ondoren garaipena lortzea posible zelako eta saskibaloian sarri gertatzen den bezala, azken hirukoak partidua itxi zuen. Aranberriko Peñak defentsa gaituzten izan arren ahal zuen bezala bota zuen, eta baita saskiratu ere. Amaiera gogorra partidu ero batentzat (74-75).



Balanzategi eta Isasa Aranberrikoen defentsa ga



orkatila bihurritu zuen. | IMANOL SORIANO

kibaloien gaineko argazkiak –Zubikoan bertan ateratako edozein argazki balioko du (partiduko, harmailetako giroa, maskotarekin, jokalariekin ateratakoak...). Ondoren, urtarrilaren 26a baino lehen *alonamendi.saskibalo@gmail.com* helbidera bidali beharko dira argazkiak, bakoitzak bere datuak (izen abizenak eta telefono zenbakia) zehaztuta. Epaimahai batek argazki onena hautatuko du eta urtarrilaren 29an jakinaraziko da zein izan den irabazlea. Irabazleak bi pertsonentzako bono bat irabaziko du Gasteizen jokatu den Errege Kopa guztia doan ikusi ahal izateko.



XURTZELAI

IÑIGO BIAIS
JOKALARIA

"Bigarren itzulian gehiago kostako zaigu partiduak irabaztea"

Beteranotasunak irabazi du gaur.

Bai, EHU Arabak oso jokalaririk onak ditu baina igarri da gure beteranotasuna. Markagailuan aldea hartu eta tarteka 15 puntuko abantaila izan dugu. Gero bai, eurek estutzen zuten, baina aldea hartzen genuen oster. Bigarren itzulian, baina, gehiago kostako zaigu halako taldeei irabaztea.

Lehenengo itzulia amaitzean, orain artekoa lan ona izan da.

Bai, partidu bat geratzen zaigu, eta galduta ere 10 partidutan bi porrot baino ez ditugu izango, edo bestela porrot bakarra. Liga hasieran ez nuen uste horren ondo ibiliko ginetik.

Emaitza horiek lasaitasuna ematen dute bigarren itzulira begira.

Bai, baina bigarren itzulia luzea egingo zaigu, seguru. Lehen esan dugu beteranoak garela, eta igarriko dugu.

Datorren astean Kantabriara.

Pielagosan kantxara. Kanpoko denak dira zailak, gehiago kostatzen zaigu motibatzea.



Irabazten hastea garrantzitsua zela jakinik zezena legez atera ziren Ford Mugarriko jokariak. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Estutasunik pasatu gabe nagusitu zitzaion Ford Mugarri bigarren dagoenari

- ▶ Lehenengotatik ibili ziren aurretik etxeok
- ▶ Gol diferentzia erabakigarria izan daiteke denboraldi bukaeran; arrasatearrak dira aurretik

EMAITZA	
FORD MUGARRI	32-26
ASKARTZA	

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Denboraldi bukaeran berebiziko garrantzia izan dezakeen partidua irabazi zuen zapatuan Ford Mugarri. Bigarren buelta hasi dute aste bukaeran Euskadiko Txapelketa jokatzeko dabilen taldeek, eta arerio zuzena duen Askartza hartu zuen etxean. Lehenengo buelta lider bukatu du Ford Mugarri Askartzarekin puntuetara berdinduta (23). Hala, irabaztea zuten helburu etxeok, eta errebantxa hartzea, bizkaitarren etxean galdu egin zutelako denboraldi hasieran.

Hasieratik aurretik

Partidu garrantzitsua zela jakinik, dena emateko gogotsu atera ziren jokalariek arrasatearrek zapatuan, Iturripeko kantxara. Baita eman ere. Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik (4-1): "Guretako oso partidu garrantzitsua izan da, eta hasieratik oso indartsu atera gara bagenekielako partidu zailtan hala egin behar dela. Abantailatxo hartu dugu, eta horrek eman digun konfiantzarekin irabazi",

zioen Kepa Isasmendi jokariak. Lehenengo zatiaren erdian berdintzea lortu zuten Askartzakoek (6-6), eta horrek, garbi erakutsi zuen golak egiten asmatzen zutenak eta defentsa lanetan ondo jardun irabaziko zuela. Urduritasunean erori barik aurrera egiten asmatu zuten Ford Mugarrikoek; hori horrela, atsedenaldira lau goleko aldearekin joan ziren (17-13).

Taldea eroso

Askartzakoek ez ziren eroso sentitu kantxan, eta hainbat hutsegite izan zituzten. Bigarren zatiaren hasieran gora egiteko gogoak erakutsi zuten kanpokoek, baina etxeok ez zieten utzi eta ordura arte izandako alderik handiena lortu zuten (21-14).

Hala, atzetik zirela ikusita defentsa mistoa erabili zuten, hau da, Ford Mugarri zuzenean baloia bi jokalariri ez utzi jokatzen. Golak egiteko zailtasun gehiago izan arren etxeok, ez zuten markagailuan hurbiltzerik lortu bizkaitarrek eta sei punturen aldearekin bukatu zen partidua (32-26).

Talde arrasatearraren gidari izan zen Isasmendi pozik zegoen bukaeran: "Taldea eroso ibili da, batez ere aurretik izan garelako uneoro. Gainera, guztiok jokatu dugu eta hori ere garrantzitsua da taldea "egiten" joateko", zioen. Eta argi du helburua: "Iaz ihes egin zigun igoera gura dugu. Zaila izango da; nik uste sailkatu egingo garela baina igoera fasea beste kontu bat da.

Soraluze BKE berdinketarekin itzuli zen

Gasteizera joan zen domeka goizean Soraluze BKE eta berdinketarekin itzuli El Pilarren kantxatik (30-30). Emaitza horretan epaileek zeresan handia izan zutela zioen Josetxo Muniategi entrenatzaileak "nahiz eta hori ez izan aitzakia".

Partidu ia guztian izan ziren aurretik bergararrak txukun jokatuta, bi-hiru gol aurretik, eta bigarren zatiko hasieran bakarrik aurreratu zitzaizkien gasteiztarrek (23-22). Akatsik larrienak azken minutuetan iritsi ziren. Bi minutu eta erdi geratzen zirenean bukatzeko 3 gol aurretik ziren, eta "gero kaka egin dugu", zioen Muniategik penatuta. "Akatsak erasoan, defentsan jaurtiketa errazak egiten utzi... eta hala ez dago irabazterik". Eta dagoeneko datorren asteko partiduari begira daude. Trapagaran hartuko dute etxean; eta hori ere partidu zaila izango da.



inditu nahian. | IMANOL SORIANO

XAKEA

Fomento taldeari irabazi eta sailkapeneko bigarren postuan dago Arrasate-Arlutz

Lehen postuen artean egotea da Arrasate eta Aretxabaletako jokalarien asmoa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Joan den astean hasi zuten xake denboraldia, eta Euskadiko Txapelketako lehenengo mailan dagoen Arrasate-Arlutzek bikain hasi du. Zapatuan, Erreterriako Fomento Cultural taldea hartu zuen etxean, Aretxabaletan; baita irabazi ere (3-1).

Fran eta Andoni Miguel anaiek segituan bukatu zituzten partidak. Erreterriarrek "tablas" edo ber-

dinketa eskaini zien eta etxekoek onartu. Hala, Aitor Alcaide eta Asier Etxagibel talde-kideak irabazi beharrean ziren: "Nik, neuk, jokaldi txar bat egin nuela uste dut, baina azkenean buelta eman eta puntuak etxekoondako", zioen Alcaidek bukaeran.

Sailkapeneko bigarren postuan daude orain bost punturekin; hain zuzen euren asmoa horixe da lehen postuetan bukatzea.

"Igotzerik izango dugun? Zaila izango da, baina badugu esperantza txiki bat", zioten.

Gipuzkoako txapelketa

Gipuzkoako txapelketan dabilten taldeek ere izan zituzten partidak; hona: preferente mailan: Baiona 1-Arrasate-Arlutz B 3; lehen mailan: C. Iriondo 2,5- Arrasate-Arlutz C 2,5; hirugarren mailan: Alfil B 3- Arrasate-Arlutz D 1.



Arrasate-Arlutz eta Fomento taldeetako kideak partidak hasteko gertu zapatu arratsaldean, Aretxabaletan. | M.A.



ATLETISMOA

ITZIAR ALDEKOA

Emakume kirolariak sarituak

III Kirolprobak herri lasterketen txapelketaren sariak banatu zituzten zapatuan, Donostian. Eta emakumeen artean Debagoienekoak izan ziren nagusi sailkapen horretan: beteranoen artean: lehenengoa, Arantxi De La Fuente (Bergara); eta sailkapen orokorrean: lehenengoa, Itziar Aldekoa (Bergara); bigarrena, Amaia Bernal (Oñati); eta hirugarrena, Maria Rosa Agirre (Bergara).

ERRUGBIA

Bost puntu ekarri zituen Kanpanzar ART taldeak Kantabriatik 14-24 irabazita Independienteri

Jokalari asko zituen min hartuta aste bukaeran Kanpanzar ART taldeak eta ordezko bi jokalarirekin bakarrik joan zen Kantabria aldera. Dena eman beharra zuten, eta hori jakinik 12. minuturako 0-17 ziren aurretik. Orduantxe esnatu zen etxeko taldea eta bi entsegu eginda hiru puntura jarri ziren 14-17; halaxe bukatu zen lehenengo zatia. Bigarrenean indarrak parekatuta ziren; arrasatearrak nekaten hasita eta etxekoak puntuak eskuratuta nahian. Polemikaz betetako jokaldi baten ostean Aitor Lezamiz ekntsegu egitea lortu zuen, eta azkenean 10 punturen aldearekin irabazi. Datorren zapatuan Elorrio hartuko dute etxean.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	P	J
Urola-Real Union	2-0	
Berio-Tolosa	3-1	
Hondarribia-Hernani	0-0	
Lagun Onak-Bergara	1-3	
Ostadar-Aloña Mendi	2-1	
Aurrera-Touring	1-2	
Aretxabaleta-Mondra	2-1	
Trintxerpe-Beti Gazte	2-0	
Oartzun-Zarauz	2-0	

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	40	18
2 Real Union	39	18
3 Aretxabaleta	36	18
4 Oartzun	35	18
5 Bergara	32	18
6 Berio	32	18
7 Hondarribia	30	18
8 Touring	28	18
9 Tolosa	24	18
10 Aloña Mendi	20	18
11 Trintxerpe	20	18
12 Ostadar	19	18
13 Mondra	18	18

14 Lagun Onak	18	18
15 Zarautz	17	18
16 Beti Gazte	17	18
17 Aurrera	17	18
18 Urola	16	18

HURRENGO JARDUNALDIA

Zarauz-Urola	
Real Union-Berio	
Tolosa-Hondarribia	
Hernani-Lagun Onak	
Bergara-Ostadar	
Aloña Mendi-Aurrera	
Touring-Aretxabaleta	
Mondra-Trintxerpe	
Beti Gazte-Oartzun	

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Ordizia	1-0
------------------	-----

1. ERREGIONALA

Arizmendi-Soraluze	3-4
Bergara-Aretxabaleta UDA B	2-2

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Eibar-Aretxabaleta	0-0
--------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Billabona	3-0
Aloña Mendi-Tolosa	3-1
Ordizia-Mondra	1-1

GAZTEEN 1. MAILA

Arizmendi-Soraluze	0-1
Aretxabaleta-Bergara	3-3
Anaitasuna-Aloña Mendi	2-2

OHOREZKO KADETEAK

Arrasate-Anaitasuna	3-0
Real Sociedad-Aloña Mendi	6-0
Beasain-Bergara	3-1
Aretxabaleta-Urola	2-1

EMAKUMEEN 2. MAILA

Mondra-Gasteizko Aurrera	1-1
--------------------------	-----

GAZTE EMAKUMEAK KOPA

Touring-Mondra	0-3
Bergara-Irun Artia	3-1
Aloña Mendi-Amara Berri	0-0

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONALA

Ford Mugarrri-Askartza	32-26
El Pilar-Soraluze BKE	30-30

EUSKADIKO TXAP. EMAK.

Aiala-Aloña Mendi	-
-------------------	---

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Eibarko Haritza-Aloña Mendi	26-28
-----------------------------	-------

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Arrasate-Ordizia	-
Bergara-Leizaran	37-27

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Soraluze BKE-Amenabar	36-32
Usurbil-Arrasate	32-17

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi	-
-------------	---

SASKIBALOIA

EBA LIGA

Natra Oñati-EHU Araba	76-60
-----------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Aranberri	74-75
--------------	-------

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Hirukide-Aretxabaleta	4-7
-----------------------	-----

ERRUGBIA

SENIORRAK

Independientes-Kanpanzar ART	14-24
------------------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi | Euskadi taldeko txirrindularia

"Badakit aurten lepoa luzatuko zaidala, baina ez diot beldurrik profesionalekin jarduteari"

- ▶ Bergarako ziklistak beste aurrerapauso bat egin du, eta profesionalekin jardungo du
- ▶ Denboraldia hasteko irrikan dago, eta Mallorkako Itzulian emango ditu lehen pedalkadak

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bergaran euria ari du, gelditu barik. Bizikleta gainean entrenatzera derrigorritu daudenak *mekauenka* dabilta honezkero, nahiz eta orain arte negu aparta izan duten hanketan kilometroak pilotzeko. Horretan ibili da Mikel Aristi ere (Bergara, 1993), eta bizikletan igartzen zaio egindako lana, ziklo-krosa egiteko erabili duela dirudi: "Eta ez zait gustatzen bizikleta zikin izatea, gaztetan irakatsi ziguten bizikleta garbi izan behar dela, eta mania hori dut". Lerrook irakurtzen dituzuenarako, berriz, Aristi Levante aldean ibiliko da bizikleta txukun, beste txirrindulari batzuekin –tartean profesionalak– ondo aprobetxatutako eta tenperatura onean egindako entrenamendu saioak burutzen, astebetetz ez bada ere.

Maila Kontinentalean diharduen Euskadi taldean korrituko duzu aurten. Beste aurrerapauso bat da hori.

Bai. Tarteka profesionalekin batera lehiatuko gara, eurek eramaten duten bizimodua izango dugu, eurak beste entrenatu beharko gara, eta guk ere kontratu bat dugu, hortan, neo-profesional bilakatu gara. Hau da, orain ordaindu egingo digute pedalei ematearren. Lehen gustuz egiten genuen gauza bat da, eta orain ere gustuz egiten dugu. Baina, orain norbait dugu atzean tarteka torlojuak estutzen dizkiguna. Hori bai, maila Kontinentala profesionalena baino koska bat beherago dago.

Orain arteko zaletasuna lanbide bilakatuko delako beldur zara?

Beldurra ez, ilusio handia dut nire bizitzako ametsa hori izan delako, ziklista izatearena. Pausoz-pauso noa.

Zelan doa negua?

Oso ondo, uste dut hauxe dela entrenatzeko inoiz izan dudana negurik onena. Bizikletan inoiz ez naiz sasoi honetan horrenbeste ibili, eta birritan baino ez naiz busti; alde horretatik, *chapeau*.

Eta hori dagoeneko urtarril erdian gaudela.

Bai, horregatik. Egia da oraindik negu luzea geratzen dela. Egunotan oso eguraldi txarra egiten ari da, baina kanpora entrenatzera joateko aprobetxatuko dugu hamar egunez. Eta ondoren lasterketak hasiko dira.

Iaz afizionatu mailara salto eginda motibatuta egoteko motiboak zenuen. Aurten zer esanik ez.

Iazkoa salto bat izan zen, eta aurtengoa beste bat da, handiagoa,

hori bai. Sekulako motibazioa dut, gauzak ondo egiteko gogoia, eta lanerako gertu nago.

Erreferente batzuk izango dituzu ziklismoan, eta atzetik datozen gazteendako erreferente zara. Zer esan dizute batzuek, eta zer esaten diezu besteei?

Profesional mailan dihardutenek esaten didate hor goian gauzak oso zail daudela, baina aurrera egin behar dela berdin-berdin. Ezagunak ditugu taldeak bilatzeko zailtasunak izan dituztenak, horrek dena esaten du. Eta atzetik datozenei esaten diet oso zaila dela saltoa ematea, baina posible dela, ni ez naizelako beste munduko inor.

Ze filosofia izango du Euskadi taldeak?

Migel Madariagak Euskaltel-Euskadi taldea sortu zuen berbera, ilusioz jardutea. Eta gero, ilusio gehiago.

Zer da orain arte egin duzuen?

Astebururo elkartu gara batera entrenatzeko, eta horrekin batera pistan lehiatzen ere ibili izan naiz [Anoetako belodromoan]. Entrenamendu mota ezberdinak egin ditugu, txarla psikologikoak... Denetik izan dugu; egia esan, negu nahiko konpletoa izan da.

Ze itxura hartzen diozu talderi?

Taldearen egoera ekonomikoa ez da ona, badakigu hori. Hala ere, zailtasun horiek gainditzeko jendea ahalegin handia egiten dabil, eta uste dut talde polita izango dugula.

Talde moduan ze helburu duzue?

Eta, zuk zeuk ze helburu duzu?

Entrenatzailea oso-oso motibatuta ikusten dut [Aritz Arberas, iaz Orbeako zuzendaria] eta bera konbentziturik dago taldea lasterketetan ondo lehiatzeko kapaz izango dela, eta horrek niri segurtasun handia ematen dit. Ni, berriz, munduko errespetu guztiarekin noa, badakit oso-oso jende ona egongo dela, baina ez daukat batere beldurrik. Gure

"Gutxi korrituko dut aurten; aukerak ondo aprobetxatu beharko ditut"

"Taldea gaztea gara, baina ilusio handiz ikusten ditut denak eta lanerako gogoz"



Mikel Aristi, joan den astean, Bergaran. | XABIER URTZELAI

helburua lasterketetan maillota erakustea izango da. Taldea ziklista gazteekin osatuta dago, badaude apur bat nagusiagoak, baina orokorrean oso talde gaztea gara, eta aurretik lan handia dugu egiteko.

Mallorkan hasiko zarete, eta gero?

Bai, denboraldia Mallorkan hasiko dugu, otsailaren 4an. Hortik aurrera, baina, ez dugu egutegi zehatzik. Lehen aurreratu moduan, ekonomikoki egoera zaila da, eta lasterketetara joateko aurrekontua behar da. Badakigu, gainera, lasterketa mordoa desagertu egingo direla, eta beste antolatzaile askok ezingo gaituzte gonbidatu, eurak ere diruz txarto dabiltzalako. Hala, badakigu aurten ez ditugula lasterketa mordoa izango, eta horrek esan nahi du aukera bakoitza ondo aprobetxatu beharko dugula.

Gustatukolitzaidakeikustea, Mallorkako Itzulia hasi baino bost minutu lehenago, irteera puntuan, Aristik ze aurpegi duen...

[Barre] Bai, gainera, esan didaten nahiko harrigarria izaten da ziklista guztiak hotel berean izaten direlako. Ba pentsa... Bizi osoa daramat lasterketak jarraitzen, argazkiak ateratzen, sinadurak eskatzen... Eta orain euren ondoan korritu behar dut. Ba bai, ea ze aurpegi dudana.

Dena dela, garrantzitsuagoa izango da, hasieran baino, Mallorkako Itzuliaren amaieran ze aurpegi duzun ikustea.

Hori beste bat izango da! [Barre]. Nik uste lepoa apur bat hazi egingo zaidala, baina beno...

Euskaltelek hartutako politika berriak zaildu egiten du gora egitea?

Euskaltelera salto egiteko berdin-berdin erakutsi behar hor egotea merezi duzula. Nik uste dut, baina, gazteendako benetako zailtasuna UCik ezarritako puntu sistema dela. Momentu honetan puntuak dituen jendeak balio du, eta Euskaltelek horiei begiratu die, beste taldeek moduan. Sistema hori ez bada aldatzen, gazteok zail izango dugu gora egiteko.

Gaur egun profesionalen artean, nor jarraitzen duzu?

Gertu ditudan ziklistak zaintzen ditut asko, eta alde horretatik, Markel [Irizar] erreferente da niretako. Ziklismoan beti entzun izan da ziklistak oso argala izan behar duela, eta Irizar eta ni gorpuzkera nahiko handikoak gara; ezaugarri antzerakoak-edo ditugulako, erreferente da, bai.



Haur txikia Gabonetako opariak zabaltzen | AVODROCC

Haurrei neurrian oparitu behar dizkiegu jostailuak

Gabonetan jasotako zenbat opari daude dagoeneko baztertuta etxean?

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Gabonetan opari mordoa jaso ohi dute haurrek, aditu askoren ustez larregi. Familia askotan urteroko helburua da neurria hartzea, baina sarri ez da betetzen. *Guraso.com* atarira asteon ekarritako artikulu batean gai hori izan dute hizpide. Gabonetan jasotako zenbat opari daude dagoeneko baztertuta? Zer egin dezakegu jostailu mordo horrekin, eta nola kudeatu behar dugu egoera?

Neurrian oparitu

Esan gabe doa lehenengo helburuak neurrian oparitzea behar duela izan. Haurraren gustuak eta adina hartu behar dira kontuan, eta arduraz jokatu. "Jostailu larregi jasotzeak ilusioa zapuzten du", diote artikuluak. "Gure haurrek zenbat gauza jasotzen dituzte eskatu aurretik? Neurriaz oparitzen badugu haurrek gehiago zaintzen dituzte jostailuak, gehiago elkarbanatzen dituzte,

eta gehiago lantzen dute irudimena. Duten hori baloratzen ikasten dute". Jostailu larregi jaso baditugu trikimailu ona da batzuk gorde, eta egoki ikusten dugunean, berriz, ateratzea. Eta, jostailu bat behin eta berriz baztertzen badute onartu behar dugu Olentzerok ez duela asmatu. Kasu horretan bota beharrean oparitu beste umeren bati —senitartekoa, laguna...—, edo eman jostailuak jasotzen dituen elkarteren bati.

Iluntasunari beldurra: ebolutiboa eta naturala haurtzaroan

L.Z. | ARRASATE

Murtziako unibertsitateak egindako ikerketa batek adierazi du 3-5 urte bitarteko umeen herenak beldurra diola iluntasunari. Beldur ebolutiboa eta naturala dela diote adituek. Neurriak hartzeko gomendioa ere egiten dute, beldur ebolutibo hori fobia ez bihurtzeko.

Jolasaren bitartez

Jolasa izan daiteke beldurrari aurre egiteko neurrietako bat. Begiak estalita egiten diren jolasak eta ilunantzean egiten direnak lagungarriak izan daitezke. Bestetik, ez diogu beldurririk izan behar gauean argi txikiren bat piztuta lagatzeari. Hori bai, haurra ikaratuta esnatzen bada, eta ikas dezan, ez piztu argi handia lasaitu arte. Oheratzeko unea bera ere egu-

nerokoaren barruan errutina moduan ezartzeak asko lagunduko du. Haurra lasaituko dute ekintzak egin, eta oheratzekoan aurreratu biharamunean batera egingo ditugun gauza guztiak.

Ez behartu haurra

Hartu kontuan haurraren erritmoak, eta ez behartu nahi ez duen hori egitera. Saihestu beldurra eragiten dizkioten gauzak: telebista saioak, ipuinak... eta ez burlarik egin. Zoriondu ausardia keinuak, eta etxeko txokoren batek beldurra ematen badio, eraman bertaraino, eta erakutsi ez dagoela ezer. Esan gabe doa kaltegarria dela haurra gutxieste, indarrez behartzea edo haserretzen garen ilunpean zigortuko dugula mehatxu egitea.



Bi ume oilo zahar jolasean. | JOSE TRAMIREZ RUIZ

Haur desobeditzaileendako terapiak badaude, baina gurasoen inplikazioa ezinbestekoa da

L.Z. | ARRASATE

Haur desobedientzia aztertu dute *Consumer* aldizkarian. 16 urtetik beherako haurren %15ek aurkezten omen dituzte desobedientzia arazo larriak: desoreka ukakor desafiatazalea esaten diote.

Bi edo hiru urterekin antzeman daitekeela dio Maria Jesus Mardomingo psikiatrak. Haurraren jokarera bere garapena kaltetzen du, eta familian desoreka larriak sortzen ditu. Psikiatrak dio, dena den, jarrera aldaketa lortzea posible dela. Hori bai, gurasoen inplikazio osoa beharrezkoa dela azpimarratzen du.

Haurra motibatatu

Lehenengo eta behin, haur desobedientzia identifikatu behar da. Patroia da autoritate figura direnekiko desobedientzia eta liskar etengabea. "Terapia eraginkorrenak haurraren

motibazioa estimulatzea eta jarrera egokiak indartzea da", dio Mardomingok. Haurrari adierazten utzi behar zaiola dio, haren kezka entzun egin behar direla. Bere jarrerak sortzen dituen arazoak ere azaldu behar zaizkio.

Haserrea neurtu

Zaila izanik ere, oso garrantzitsua da helduak haserrea neurtzea. Kontrolatu egoera, eta gaizki egin duenean esan bere jarrera ez dela onargarria. "Errutinak, ordutegi jakin batzuk errespetatzeak eta inguruan garbitasuna eta ordena egoteak asko laguntzen du", dio adituek. Garrantzitsua da, baita ere, arauak eta mugak ipintzea. Argiak eta zentzuzkoak behar dute, eta haurraren adinarendako egokiak. Azkenik, ondo egindakoak ikusarazi behar dira.

Haurren kasuan ere, zelako gaitza, halako belarra

L.Z. | ARRASATE

Euskal medikuntza herritarrean sendabelarren erabilera oso su-traituta egon da beti. Ekain Martinez de Lizarduiren *Sendabelarrak eta gure txikiak* izeneko artikulua jaso dugu asteon *Guraso.com* atarian. "Hamaika erremedio aurki daitezke gure txikien ondoezak arintzeko (...) Gonbidapen bat luzatzen dizuet, belarrak ezagutu, bildu, prestatu eta erabiltzen hasteko", adierazi du, eta hiru erremedio eman ditu.

Argibide garrantzitsuak

Erremedioak eman aurretik, ordea, hainbat puntu argitu ditu. "Belarrak produktu naturalak izateak ez du edozein modutan eta kantitatean kontsumi daitezkeenik esan nahi. Izan ere, sendabelar batzuek sendagai kombentzional askok bezainbeste eragin sor deza-

kete". Dio sendabelarrak bestelako sendagaiekin uztar daitezkeela, eta, kasu batzuetan, sendagairen beraren eraginkortasuna biderka dezaketela. Eta gomen datzen du beti eskatzeko sendagilearen edo bestelako espezialista baten iritzia.

Horiek esanda, txikiendako hiru erremedio ematen ditu Martinez de Lizarduik: azalean sor daitezkeen erredurendako ukendua, behekoetarako azenario ura, eta kolikoetarako infusioa. Sukarra, eztula, katarroak, dermatitisak... leuntzeko eta sendatzeko belarrak ere badaudela adierazten du.

Erredurendako ukendua

Kalendula —*Calendula officinalis*— lore eskukada bat bildu, aloe —*aloe vera*— zati baten barruko gel guztia, eta intsusa —*sambucus*

nigra— adar baten bigarren azala oliotan beratzen ipini, su txikian. Ordubeta pasa ondoren, zapi edo kaferako filtro batzuk erabiliz filtratu. Filtratutakoan, argizaria bota, eta, behin urtuta, tarro txikitari sartu.

Azenario ura

200 gramo azenario eta itsas-gatz pixka bat litro ur batean ipini. Ur hori irakiten jarri, eta erdira jaitzen denean itzali. Ur horri gehitu ura hasierako kantitatea lortu arte —berriz ere, litro ur bat lortu arte—. Ur hori iragazi eta hozkailuan gorde.

Kolikoendako infusioa

Arraizka —*melisa officinalis*—, mihilua —*foeniculum vulgare*—, eta kamamila —*matricaria camomila*— infusio bidez hartzen dira.



KULTURA



Ernesto Sevilla zapatuko ikuskizuneko une baten; publikoaren parte-hartzea ere eskatu zuen monologistak. | IMANOL SORIANO

Ernesto Sevilla, edo edozeri punta atereaz barre algarak lortzeko artea

Elgetako I. Monologo Mostrak arrakastaz ekin dio bere ibilbideari

TXOMIN MADINA | ELGETA

Formatuak ez du aparteko misteriorik: era simplean atondutako agertokia eta pertsona bat berbetan. Luze. Hutsalak diruditen gaien inguruan gehienetan. Baina ez beti. Itxura baten behintzat gai batetik bestera erraztasunez salto eginaz.

Zertan datza orduan monologo baten arrakastaren giltzak? Zergatik bakarriketa batzuek irribarre lotsati batzuk bakarrik lortzen dituzte eta beste bakarriketa batzuek algara ozenak? Zergatik lortu du Ernesto Sevillaren *Monologos Coconut* ikuskizunak asteburuan Elgetara gerturatu direnak barrez leher-tzea? Bere esanetan monologoaren arrakasta hizlariaren gertutasu-

nean datza: publikoak ez dezala umorista bat ikusi, bizitako azken komeriak kontatzen ari den lagun bat baizik. Eta gakoa hori bada, esan daiteke Albaceteakoak bete-betean asmatzen duela.

Umorea, edozeri buruz

Lagun batekin edozertaz hitz egin dezakezu. Horrelaxe egin du Sevillak asteburuan Elgetako Espaloia Kafe Antzokian eskainitako bi saioetan. Drogak, nerabeak, ume-tako oroitzapenak, politikariak, famatuak, familia... Denak balio du umorerako elementu moduan.

Eta umorea bera, edozein modutakoa izan daiteke. Argi geratu zen Sevillak ia bi ordu iraun zituen ikuskizunean botatako perletako

batzuetan: zenbait pasartetan umore krudela izan zen nagusi ("Ez zaizkit bi hanken gainean jartzen diren animaliak gustatzen; esaterako, Maria Teresa Campos"); beste batzuetan bere buruaz barre egin zuen ("Hain dut buru handia, behin gauza bat bota zidaten burura eta gauza hori orbitan bueltaka izan nuen hainbat egunez"); eta zuzentasun politikoak ere alde batera utzi zituen ("Bada agertokira igoko den neskarik? Ez? Eta lumarik duen mutilik?").

La hora chanante, Muchachada Nui edo *Museo Coconut* telebista saioetan aritutako Sevillak ederki kontrolatzen du formatua: guztion buruan gauzatzen diren ideiak eta egoerak primeran azaltzen ditu, ikusleekin berehalako

konexioa lortuz. Eta egin beharreko txistea akaso hain ona ez denean, badaki *ojete* hitza bota eta barreak ziurtatuta dituela. Horixe da eta bere beste armetako bat; publikoak ezagutzen duela: badaki zeintzuk diren bere esamoldeak, espresioak. Eta ezagutzeaz gain, gogoz itxaroten ditu.

Egubakoitzean gehiago

Ernesto Sevillak hasiera aparta eman dio Elgetako I. Monologo Mostrari. Aparta kalitateari dagokionez, eta baita kantitateari dagokionez ere: egubakoitzeko eta zapatuko ikuskizunetan, goraino bete zen espaloia. Datorren asteburuan jarraituko du Mostrak Sara Escudero eta Miguel Iribarrekin.



ERNESTO SEVILLA
MONOLOGISTA

"Monologo baten gakoa da ikuspegi orijinala eskaintzea"

Nola geratu zara behin monologo amaituta?

Oso ondo, esperientzia indargarria izan da. Izan ere publiko oso ona izan da: barre egin dute, txalo... Publiko zoragarria izan da. Zer gehiago eska daiteke?

Irten orduko hasi da jendea barrezka. Hori da ohikoa?

Nahiko nuke beti horrela izatea, baina batzuetan gehiago kostatzen da. Orain, telebistan agertuta, irten eta jendeak barre egiten du, lehen gogoragoa zen. Baina leku guztietan ere ez da berdin.

Azken urteotan monologoak bogandaude. Zein da monologo on bat egiteko gakoa?

Nik uste dut gakoa dela umoristak perspektiba orijinala, ezberdina izatea. Tipo arrunta izatea ere bai, jendea zurekin identifikatzea: jendeak ez dezala komiko bat ikusi, zerbait kontatzen dion laguna baizik.

Zer iruditzen zaizu Elgeta moduko batek horrelako mostra antolatzea?

Oso ondo. Kuriosoa iruditzen zait horrelako herri txiki batek horrelako mostra bat izatea; gustatuko litzaidake ekimen hau bezalakoak beste leku batzuetan ere errepikatzea.

AMAIA
ARROITIA
ARRASATE



"Asko ezagutu barik etorri naiz eta hasieran asko gustatu ez arren, gero barre pilo egin dut. Senarrak ikusi ohi ditu monologoak, nik neuk ez. Baina gaur gustatu zait, zerbait ezberdina iruditu zait".

MARICRUZ
GARITANO
BERGARA



"Oso polita iruditu zait, eta bera ere oso ondo ikusi dut. Gauzak esateko duen erraztasuna azpimarratuko nuke, baita nola aldatzen duen gaiz ere. Telebistan ere ikusten ditut tarteka monologoak".

IÑIGO
ARRIZALA
EIBAR



"Telebistatik ezagutzen nuen Sevilla, baina zuzenean askoz gehiago gustatu zait, jartzen dituen aurpegiak eta... Bere beste emanaldi baten ere egon nintzen, baina gaurko luzeagoa eta dibertigarriagoa izan da".

GORKA
IÑURRIETA
BERGARA



"Telebistan ikusi izan ditudan monologoak denak batean sartu ditu eta dibertigarria iruditu zait. Jendea ere gustura ikusi dut, berehala poltsikoratu du; azkenean balio seguru bat da hau ekartzea".

IZASKUN
OJANGUREN
ESKORITATZA



"Oso ondo egon da. Ez dut monologoak ikusteko ohitura handirik, baina pare bat ikusi ditut eta gustatzen zaizkit. Mostra oso ondo iruditzen zait; kontzertuez gain herriari beste bizitasun bat emango dio".

Bergaran ere sinestunak ditu San Kanutok; jai ederra egin zuten

Hip-hop doinuez girotuta, gazteek doan patinatzeko aukera izan zuten Lainon

Z.V.D.M. | BERGARA

San Kanuto egunak atzean utzi ditu Aretxabaletan igarotako hamar urteak eta Bergarara lekualdatu da oraingo honetan.

Izan ere, zapatuan ospatu zuten jaiak Laino skate parkean eta herri ezberdinetatik bertaratuak lagunak erakarri zituen deialdiak; gazte eta ez horren gazteek bat egin zuten festarekin.

Eguerdiko txupinazoarekin eta mokadu janarekin inauguratu zuten San Kanuto eguneko egitaraua eta momentu horretatik aurrera, festak ez zuen atse-

denik hartu. Nahiz eta bazkarira uste baino jende gutxiago hurbildu zen, ez zen girorik falta izan. Eta mahaiaren bueltan indarberritzeak ziur mesede egin ziela bati baino gehiagori, egunarekin jarraitzeko.

Musikaz girotuta

Hip-hop doinuez txanda izan zen ondoren. Skate parkeko taberna musikaz girotu zen arratsaldean. Bertaratutakoek gustura entzun zituzten San Kanutoren omenez

aritu ziren DJak eta baita osteko Agresion Verbal, Artilleria Pesada eta Kabal taldeak ere.

Doan patinatzeko aukera

San Kanuto eguna skate parkean ospatzeak, gainera, instalazioak doan erabiltzeko aukera ekarri zuen, eta asko eta asko izan ziren zapatuan zehar goiz zein arratsaldean aukera aprobetxatu guran bertaratu eta euren trebezia erakutsi zutenak.

Ordu txikitik agurtu zuten San Kanuto Bergarako Lainon.



Doan patinatzeko aukera izan zuten zapatuan Lainon. | IMANOL SORIANO



HODEI ELEXPURU
BERGARA

"Aretxabaletari erreleboa hartuta San Kanuto Eguna Bergaran antolatu dugun lehenengo aldia izan da eta ongi joan da. Gustura gaude eduki duen erantzunarekin, eta datorren urtean ere antolatuko dugulakoan nago".



JON IRONDO
ARETXABALETA

"Asko gustatzen zait patinatzea eta sarritan etortzen naiz Bergarara instalazioak eta onak direlako. Eta San Kanuto eguna dela eta, Laino skate parkeko sarrera doakoa izan denez aprobetxatu gura izan dut".



LUIS MARTINEZ
BERGARA

"Bazkalostean iritsi naiz, eta aparteko giroa topatu dut. Herrian egiten den lehenengo aldia izateko ederto joan dela iruditzen zait. Musikaz girotuta, jendea patinatzen eta gu, kartetan jokatzen, primeran".



Hip-hop doinuak nagusi. | IMANOL SORIANO



Ez zen musikarik falta. | IMANOL SORIANO



INIGO BIAIN

Bertso paper lehiaketan sarituak

Gaztelekuko IV. Bertso Paper Lehiaketak baditu irabazleak; LH sailean Uxue Egaña izan da lehenengoa eta Intza Osa bigarren. DBH sailean berriz, Maider Arregi eta Oneka Anduagaren lanak irten ziren aurreneko bi postuetan. Aurten, 135 lan jaso dituzte antolatzaileek, aurreko edizioan baino 8 gehiago. Oñatiko Bertso Eskolako kideek osatutako epaimahaiak ez zuen lan makala izan. Zorionak guztioi!

Gau izerditsua Los Cretinos taldearen 60's punk-arekin

Antzuolako gaztetxea musikaz bete zuten egubakoitzean ZZ Blues Band taldearekin batera

JAGOBA DOMINGO | ANTZUOLA

Antzuolako gaztetxea ondo baino hobeto berotu zuten Los Cretinos eta ZZ Blues Band taldeek egubakoitzean gauean. Garage eta blues gau izerditsua izango zela zioen kontzertuko kartelak eta hala izan zen, Los Cretinos taldeko baxu-jole *Pondok* esan bezala, kontzertu bizia izan zen eta jendea gogotsu joan zen gaztetxera. Hitzordura 70 pertsona inguru gerturatu ziren eta taula gainera igo zen lehen taldea Arrasateko *garageroa* izan zen.

Sasoi onean dago taldea

Azkenaldian kontzertu asko eskaini dituzte eta taula gainera asko igartzen da, *Papelina* instrumentaltarekin abiarazi orduko, eszenatokiaren errege bihurtzen da Jim *bluesman*-a. Eta momentu horretatik aurrera kantak balak

sentzian irabazi ahala, kantuek, berriek zein zaharrek, beste puntu bat lortu dute.

Kontzertu bizia izan zela esan zuten taldekideek, eszenatokian eroso sentitu ziren eta publikoak ere ondo erantzun zuten.

Gaua amaitzeko Zuhaitz Zati-txuak blues band Soralezeko taldeak gerturatutakoak dantzan jarri zituen *Rhythm and blues* erritmo kutsakorrarekin euren lehen lana aurkezten.



Los Cretinos Antzuolako gaztetxean. | IMANOL SORIANO

Tuperik gabeko rockabilly eta guzti martxa onean joan da Itxungi Rock jaialdia asteburuan

- ▶ Itxungi irrati librearen aldeko bi eguneko festak gustu guztientzako musika ekarri du Arrasatera
- ▶ Ikusleek sortutako giro ederra eta taldeen arteko bizikidetzak bikaina azpimarratu dute antolatzaileek

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Itxungi Rock jaialdiaren edizio berria egin da asteburuan. Punk, hardcore zein rockabilly doinuek Arrasateko Gaztetxea hartu dute bi egunez eta dena, Itxungi Irrati librea autogestionatzen laguntzeko.

Bi egun eta zortzi talde: Psicoterror, Bar Remigio eta Metralleta egubakoitzean eta WC, Los Cretinos, Papalagi, Transistores 50 eta Dissater People zapatuan. Arrasateko Gaztetxean asteburuan entzun diren askotariko doinuek helburu bera izan dute: Itxungi irrati librearen alde dirua bil-

tzea.

Kontzertuak lasai segitzeko modukoak izan dira, jendetzarik gabe, emanaldi bakoitza gustura asko jarraitzekoak. "Bertaratu-takoek giro ederra sortu dute bi egunetan, eta taldeen artean ere, izugarrizko bizikidetzak egon da". Hala esan digu Mikel Arregi Itxungi irrati libreko kideak.

WC, Fat Lizzyren ordez

Bost lagun aritu dira jaialdia prestatzen, eta bi egunetan lanpetuta pasa ondoren, egindakoarekin pozik daudela esan digu



Psicoterror taldea, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

Arregik. Halere, jaialdi aurretik dena prest eduki arren, egubakoitzean zapatuko karteldegia aldatu behar izan zuten. "Hasieran Fat Lizzyk jo behar zuen, baina taldekide batek goloak zituela eta, bertan behera geratu zen emanaldia".

Beraien ordez, WC talde gaztea igo zen oholtzara. "Euren lehenengo kontzertuetariko bat izan da. Pozik zeuden horrelako eszenatokira igotzeko aukera izateagatik".

Musikan hasi berriak batzuk eta beteranoak besteak. Los Cretinos talde arrasatearrak azken uztak emandako Addictos Sonitus laneko zein aurreko diskoetako kantuak tartekatuz zituzten. Eta Donostiatik bertaratu-tako Transistores 50 hiru-koteak doinu rock&rolleroek dantzan ipini zuten gaztetxea. Itxungi irratiari bultzada emateko jaialdiak, DJ Elviscainorekin itxi zituen ateak ordu txikitik.

Lehen urteko balorazio positiboa egin du AZEk

Bisita gidatuak eta hitzaldi zikloak, arrakastatsuak



Arrasate Zientzia Elkartean batzar orokorra. | IMANOL SORIANO

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartek urteko batzar orokorra egin zuen zapatuan. 90ko hamarkadan sortutako taldea denboraldi bat lozorroan egon ostean, iazko urtarri-lean indarberrituta agertu zen eta aurreneko urte honen balorazio positiboa egin du elkartek.

Aurrera ateratako ekimen ezberdinek (bisita gidatuak edota hitzaldi zikloak, kasu) erantzun bikaina izan dutela adierazi zuten. 2013an ere bide horretatik jarraitu gurako luketela gaineratu zuten, herritarren artean piztuko interesa dela medio. Bestalde, Arrasateri buruzko dokumentazio historiko gehiena herritik kanpo, Sevilla, edo Valladoliden topatu daiteke, "eta zerbait egin gura dugu horiek eskurago izateko".

Udalari eginiko lokal eskaerak ere erantzuna izan duela esan zuten; orain eskaintza aztertuko dute. Amaitzeko, bazkideak prest azaldu ziren etorkizuneko proiektuetan behar izanez gero, auzolaneari aritzeko.



IMANOL SORIANO

Musikaren erritmora dantzan

Zapatu arratsaldean disko festa egin zuten Bergarako Zabalotegi aretoan. Arrakastatsua izan zen DJ Amaiak gidatu zuen saioa neska-mutil mordoak erakartzea lortu baitzuten. Dantzalekua utzita, musika jartzailearekin oholtzara dantza egitera animatu zirenak ere egon ziren, koreografia eta guzti, gainera.

SUPERSWEET PERFORMS
TOMMY
 + DJ MANSI - JAIA 60'S
TARTUFO ARETOA
 URTARRILAK 19, 23:00 8/10€
 SAN JUAN AUZOA 35, BERGARA

BY THE WHO

EL COLUMPIO ASESINO

TARTUFO ARETOA - San Juan auzoa 35, Bergara

Urtarrilak 24, eguna, 22:00etan
 Sarrera 15-18 euro. Sarrerak mugatuak dira.
 Autobusa 21:30ean Oxirondo azokako geltokitik.

TARTUFO
 BERGARA
 OTSAILAK 2 LARUNBATA

- Slow Dance Club -

Dj Pablo Akaros (Mrcityscene)
 Dj's Buda y Rami (Kogollo Party Krev)
 Dj's Beba Y Panda (Desguace Music)
 Dj Asier Galiano (Aretxabaleta)

Ordutegia 01:00-10:00 sarrera + edaria
12 euro

* Autobusa (Azokako geltokia)
 04:00 eta 05:00 (igoteko)
 08:00 eta 10:00 (jesteke)

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

GURE MUSIKA TALDEAK

FAT LIZZY



Fat Lizzy taldea Arrasateko 360 aretoan emandako kontzertu batean. | JAGOBA DOMINGO

"Gure ibilbide musikalean oso presente egon da Thin Lizzy"

- ▶ Musika munduan eskarmentu handia dute Arrasateko gazte hauek
- ▶ Rock and roll-aren historian baztertutako talde handi bat berpizten dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Oraingo honetan, hard rock musikaren urrezko aroko talde handienetako batera egin dugu salto; gitarra indartsuak, melodia itsaskorak eta kantu borobilak. Guzti horretaz hitz egiteko, Fat Lizzy taldeko Borja Hernandez, baxu-jole eta abeslariarekin, eta Enaitz Etxebarria, bateria-jolearekin egon gara. Thin Lizzy talde irlandarraren kantuak berpizten dituzte arrasatear hauek. Bitter Honey taldeko base erritmikoa osatzen dute, eta gitarra lanetan, Jon Garcia eta Inigo Zubizarreta aurkituko ditugu, biak ala biak sei sokekin trebezia handikoak.

Nola sortu zen Fat Lizzy?

Istoria hau aspalditik dator, gure lehen taldean, Fase Terminalekin

Waiting for an alibi abestia jotzen genuen eta ordutik aurrera, gure ibilbide musikalean, momentu ezberdinetan oso presente egon den taldea izan da Thin Lizzy. Denbora aurrera joan ahala, kantu bat egitetik kontzertu oso bat eskaintzeko kantuak egitera pasatu ginen. Hala ere, gaur egungo formazioa ez zen lehena izan. Hasieran Chicos Boom, gure garaiko taldearekin eman genuen

lehenengo kontzertua Arrasateko Gaztetxean antolatu zen 70ko hamarkadako jaialdian, eta urteak joan ahala formazio honekin amaitu dugu.

Talde ezberdinetako kideak biltzen zarete, zaila izango da ezta?

Bai, hala izaten da, orain arte Gabonetan eman ditugu kontzertuak, denok ere denbora tarte handiagoa dugulako Fat Lizzy proiektuari heltzeko. Honen hasieran, Inigo Bostonen zegoen ikasurtean gitarra ikasten, beraz Gabonetako egunak aprobetxatzen genituen. Eta gaur egun, taldekide bakoitzak ibilbide musikal ezberdinak ditu eta orduantxe izaten da honi heltzeko sasoi aproposena, denok etxean gaudelako eta egun libre batzuk izan ohi ditugulako.

"Omenaldi talde serioa sortu nahi dugu Fat Lizzy-rekin"

Zergatik Thin Lizzy?

Talde irlandarraren bertsioak bakarrik egin aurretik, Queens of rock bertsio taldearekin gustuko kantak jotzen genituen. Adibidez Judas Priest, U.F.O. edo Iron Maiden taldeen kantuekin osatzen genuen kontzertua, baina egia esan, Thin Lizzy-k xarma berezi bat izan du gutako askorentzat eta bide horretatik jarraitzea erabaki genuen. Gainera, taldean bi gitarrista birtuoso izanda, Thin Lizzy-ren kantuak aukera politak eskaintzen ditu eta nola ez, kanta oso onak dituen talde handi bat da.

Zelan aukeratzen dituzue jo beharreko kantuak?

Egia esan ez dugu burua larregi astindu kantuak aukeratzeko. Taldearen etapa nagusia betetzen saiatzen gara, 1976tik, *Jailbreak* diskoa atera zutenetik; 1981era *Renegade* kaleratu zutenen. Egia esan aurretik ere disko onak dituzte, baina bi gitarren arteko joku indartsua *Jailbreak* diskan hasi zen, beraz nahiko naturala ikusten dugu datu hori.

Ahotsak baina, zeresana du.

Bai, hori da kantuak egiteko baldintza bakarretarikoa, eroso sentitu behar naiz hauek abesten. Tonu aldetik lan handia dutelako, baina horrez gain letra oso luzeak idazteko ohitura zuen Phil Lynott-ek, eta hauek ondo ikasteak orduak eskatzen ditu. Hala ere zaila izaten da hainbeste kantu onen artean aukeraketa egitea. **Alde batetik klasikoak jotzen dituzue, baina eskertzekoa da kantu ilun batzuk jotzea.**

Bai, argi dago kantu ezagun asko jo egin behar dituzula, baina ezkutuko altxor batzuk jotzea ere pozgarria da, adibidez *Black Rose* diskoan dauden *Get out of here* edo *Thoughtest street in town*.

Gabon inguruko kontzertuak egiteko zenbat entsegu egiten dituzue?

Aurten bi bakarrik egin ditugu, baina egia da urte batzuk darrazatagula kantu hauek jotzen. Hala ere, detailez jositako kantuak dira eta norberak bere kontu lokalera lanak eginda eraman ohi ditu.

Eta orain zein asmo duzue Fat Lizzy-rekin?

Lagunarteko proiektu bezala sortu zena, omenaldi talde serioago batean bilakatzea pentsatu dugu. Lan handia da urtean bat edo bi kontzertu jotzeko, gainera Bacon Maiden bertsio taldean ia formazio berdina gaude, beraz, aukeratzeko momentua heldu zaigula uste dugu.

Orduan Thin Lizzy-ren aldeko apustua egingo duzue?

Bai, seguruenik aurrerantzean urtean zehar ere kontzertuak ematen saiatuko gara, nahiz eta agenda kontuekin zaila izango dela argi dugun. Azken finean gutako bi Bitter Honey taldean gabiltza, beste bat gitarra ikasten Iruñan eta bestea S.A. taldearekin kontzertuak ematen. Hala ere, esperantza txiki bat dugu eta gauzak hobeto eta serioago egiteko gogo handia daukagu. Aurrerantzean kantuak lantzeaz aparte, karakterizazioari, eszenarantzeari edota jantziei garrantzia gehiago emango diegu. Gauzak ondo joanez gero, omenaldi talde serioa egiten saiatuko gara.

Beraz Thin Lizzy edo Iron Maiden?

Biekin geldituko ginateteke, muskalki esperientzia ezberdinak baina aberasgarriak direlako biak eta bata eta bestea maite ditugu berdin. Hala ere oraingo honetan Thin Lizzy irlandarren gatik apostu egingo dugu.

Graph Search da Facebooken ustiapen berria


Milioika erabiltzaileen datu eta informazioa gurutzatu egingo dute bilatzaile berri baten



Mark Zuckerberg, joandako martitzeneko aurkezpenen. | GENBETA

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Aurkeztu dena Facebooken zerbitzu gehigarri bat izan da, Graph Search, bilatzaile bat antzeko gustu edo beharrak dituzten erabiltzaileak elkarren artean konektatzeko. Facebookek ustiatzan duen informazio kopurua izugarria da. Egunero sare sozialean milioi bat erabiltzaile berrik egiten dute alta, 240.000 milioi irudi baino gehiago daude igota, erabiltzaile aktiboak mila milioitik gora dira eta erabiltzaileen arteko konexioak bilioia gaindi dira. Informazio hori guztia gurutzatu nahi du aurrerantzean Facebookek, erabiltzaileak eta haien jarduerak elkarren artean lotzeko. Bilatzailean galderak bota daitezke eta behar horrekin zerikusia izan dezakeen informazioa duten erabiltzaileak erakutsiko ditu. Erabiltzaileen profilak eta eurekin lotutako edukia gurutzatzen ditu bilatzaileak. Bilaketan emaitzetan erabiliko den informazioa erabiltzaileak publiko egindakoa izango da, aurkezpenen argitu zutenek. Facebooken egongo ez balitz, Bing bilatzailean osatuko luke bilaketa. Microsoften eta Facebooken arteko aliantza sendotuz doa, hortaz.



Myspace-en itxura berria. | MYSPACE.COM

Myspace berria zabalik da, itxura guztiz aldatuarekin, nabigazioa erraztuta

J.B. | ARRASATE

Urte eta erdi beta pribatua izan eta gero abiatze ofiziala izan du Myspace berriak; hain zuzen, New Myspace izenarekin bataiatu dutena. Erreproduzibilgailuan, bilaketan eta diseinu erabat berrituan datoz aldaketak.

Aurretik, gauza jakina zen moduan, goitik behera diseinatu dute sare osoa, erabilera sinpletu, bai bilaketan zein

nabigazioan, eta musika erreproduzibilgailua orriaren beheko aldeko barra horizontal baten kokatu dute. Abestiak itxaron zerrendan jarri eta kontaktuek berriki entzundakoak gehitzeko aukera ematen du erreproduzitzaila berriak. Helbide berria *new.myspace.com* da eta Facebook eta Twitter kontuekin ere sar daitezke aurrerantzean. Justin Timbarlake musikaria da arduradun nagusia.

SMSen bidalketa asko jaitsi da 2012. urtean

Aldi berean, Interneteko mezularitza aukera ezberdinek gora egin dutemazken urtean

J.B. | ARRASATE

Mugikorretako SMS mezularitzaren erabilera %21 jaitsi da 2012an eta Internet bidezko mezularitzak %31ko gorakada izan du, zerbitzu mota guztiak kontuan izanda. WhatsApp eta Line zerbitzuak dira erabilienak Estatuan. Telefono mugikorretatik %43 Internetera konektatuta daude, orain urtebete baino %210 gehiago; hortik, igora hori.

Azken datuak

Telefonica enpresak urtero kaleratzen dituen txostenetatik ateratako datuak dira aipatutakoak (*La sociedad de la información en España* izeneko txostena, sarean eskuragarri), eta, guztira, sarera konektatuta dagoen mugikor kopurua 6,6 milioikoa da, Espainiako Estatu delarik lehena European konexio kopuruan, %63,2 baitira smartphoneak, mugikor



Line eta Whatsapp, mugikorretan. | GOOGLE

guztietatik. Aplikazioen deskarga kopurua ere deigarria da, %140ko gorakada izan baitute 2012an, eta, egunean, batez beste 2,7 milioi deskarga gautzen dira Espainiako Estatuan

soilik. Erabilpen datuei dago kienez, 16 eta 24 urteko gazteen artean, egunero, %85,3 konektatzen dira. Eta gainontzeko adin tartean, berriz, nahiko behera egiten dute datuek.

Pribatutasun gorabeheren ordaina etorri zaio Instagram-i, erabiltzaileen ihesarekin

Politika aldaketaren ika-mikaren ostean, erabiltzaileek behera egin dute

J.B. | ARRASATE

Datu trafikoari buruzko datuak ezkututzen edo iluntzen saiatu badira ere, nabaria izan da Instagramen erabilera mailaren jaitsiera pribatutasun politiketan aldaketak egin behar zituztela iragarri zutenetik. Erabilera baldintza berrien harira piztutako ika-mika ez zen txikia izan abendu amaieran, eta nahiz eta azkenean pribatutasun baldintzak zeudenetan lagako zituztela iragarri, sortutako mesfidantza horren ordaina etorri zaie Instagrami eta, ondorioz, Facebooki



Facebook eta Instagram bat dira gaur egun. | TRECEBITS.COMW

ere, argazkiak partekatzeko sare sozialaren jabe baita.

Eragin argia

Instagramerik 100 milioi erabiltzaile erregistratu dauzka, AppStoren arabera, baina erabiltzaile aktiboak 7 milioi pasatxo dira, besterik ez.

AppStatek joan den asteko asteleheneko datuak orain hila bete bateko astelehen bateko datuekin konparatu ditu, eta alde oso handia da. Hala, abenduaren 14an 7,41 milioi erabiltzailek erabili zuten sarea eta orain dela hilabete, abenduaren 17an, 16,36k, bikoitza baino gehiago. Pribatutasunean egin asmo zituzten aldaketak iragarri eta egun batera, gainera, zerbitzua erabili zutenak 5 milioi lagun izan ziren, AppStoren arabera. Eraginaren seinale.

Estatuan gutxien Euskadin erabiltzen da '.es' domeinua

Estatuan euskal enpresak dira .es domeinua gutxien erabiltzen dutenak. Euskadiko enpresen %28,2k soilik erabiltzen dute Espainiako domeinua (Andaluzian eta Madrilen, adibidez, erdiak). Euskal enpresen %73k .com domeinua erabiltzen dute. Datu gehiago emanda eta konparatzeko, Katalunian enpresen %8k darabilte .cat domeinua.

Martxan da Facebook Messenger-en deiak egiteko zerbitzua

Iragarri bezala, eta Australian probatan izan eta gero, erabilgarri egiten hasi da Facebook-en Messenger aplikazioaren VoIP deiak egiteko zerbitzua. Zuzenenan sartzen dira lehian, horrela, Skype, Viber edo modako Line zerbitzuekin. Kontuan hartzekoa da, halaber, Facebook gero eta sartuago dagoela mugikorren alorreko zerbitzuetan.

Megaupload-eko Premium erabiltzaileak oraindik esperoan

Euren fitxategiak Megauploaden gordeta izateagatik ordainpeko kontua zuten erabiltzaileek, oraingoz, ezin izango dituzte euren fitxategiak berreskuratu, kasua daraman epailearen erabakiz. Eragozpen legalak ei daude jabeek euren fitxategiak berreskuratu ahal izateko. Oraingoz, galdutzat jotzen dira.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Aimar Agirre Lete
Urtarrilaren 26an, 7 urte.
Zorionak! Ondo ibili zure urtebetetze egunean, familia guztiarekin batera. Muxu handi bat danon partetik, batez ere Ekainek.



ARRASATE
Paula Heriz Uribealgo
Urtarrilaren 26an, 23 urte. Zorionak, *prexioxi!* 23 urte gure neska fin eta langiliak! Ondo-ondo ospatu, ingurukuekin ahaztu barik, eh! Patxo asko Zigarrolatik.



OÑATI
Marina Axpe del Amo
Urtarrilaren 25ean, 4 urte. Zorionak, bitxito! Muxu handia etxeko guztion partetik, bereziki Carlak, aitatxok eta amatxok.



ESKORIATZA
Iker Camuesco de Castro
Urtarrilaren 24an, 6 urte. Zorionak zure gurasoenn partetik. Asko maite zitugu, txapeldun!



ARRASATE
Luken Ormaetxea Artola
Urtarrilaren 23an, 7 urte. Badatorrela putz egiteko eguna, laztana! Konturatu orduko zu Athleticen eta gu jubilaute! Muxu potoloak familia osoaren partetik.



ESKORIATZA
Serafin Sanchez
Urtarrilaren 23an, 48 urte. Zorionak eta laztan handi bat emazte, seme eta etxeko gainerakoen partetik.



OÑATI
Naroa Letamendi Narraspe
Urtarrilaren 23an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako, *prexioxa*. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko eta bereziki Naiaren partetik.



BERGARA
Mikel Etxaniz Zafra
Urtarrilaren 23an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik. Segi horrela.



ARETXABALETA
Ekaitz Osoz Barrena
Urtarrilaren 22an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta merienda ederra prestatu. Muxu potolo-potoluak Irati, amatxo eta aitatxoren partetik. Aupa UDA!



OÑATI
Ander Iciar Garcia
Urtarrilaren 22an, 2 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat etxeko guztion partetik.



MUTRIKU
Oihan Iriondo Lasaga
Urtarrilaren 22an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat danon partetik; eta ondo pasatu Mari Mototsekin!



ESKORIATZA
Aimar Ortiz Esnaola
Urtarrilaren 21ean, 5 urte. Zorionak, pirata! Merendola goxo-goxoa prestatu eh? Eguna ondo pasatu. Anerrek, aitatxok eta amatxok. Pila maite zaitugu. Txokolatezko bost muxu potolo. Pa!



ARRASATE
Manex Mendizabal Larrañaga
Urtarrilaren 21ean, 3 urte. Zorionak, maitxia, eta urte askotarako! Patxo potolo-potolo bat ama, aita eta etxeko guztion partetik.



BERGARA
Luken Pagaldai Gomez
Urtarrilaren 21ean, 6 urte. Bere seigarren urtebetetzean, zorionak eta patxo potolo bat, gure mendilaze maittari! Aitatxo, amatxo eta Mati.



ESKORIATZA
Maider Garcia Serrano
Urtarrilaren 19an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Txokolatezko muxu pila bat aitatxo, amatxo, Unai eta familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Paula Andres Carmona
Urtarrilaren 19an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat guraso, lehengusu eta familia guztiaren partetik.



BERGARA
Olatz Gallastegi Visitacion
Urtarrilaren 19an, 9 urte. Zorionak eta musu handi-handi bat familia osoaren partetik.



ARRASATE
Eider Elorza Astola
Urtarrilaren 19an, 3 urte. Zorionak, Eider! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo goxo-goxo bat amatxo, aitatxo eta Izadiren partetik.



OÑATI
Iker Gil Albizu
Urtarrilaren 19an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, familia eta lagunuen artean. Patxo handi bat etxeko guztion partetik!



ARRASATE
Eider Kortabarria Aranzabal
Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Jarraitu horrelako alai izaten eta oso ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo bat etxeko guztion partetik.



ARETXABALETA
Jesus Mari Martinez Goitia
Urtarrilaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, aitona! Muxu handi bat familia guztiaren partetik eta beste 78 egin ditzazula! Bereziki Oxel, Lur, Hodei eta Beñat.



OÑATI
Iraide Biain Campos
Urtarrilaren 17an, 5 urte. Kaixo polita! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Bost muxu potolo familien eta bereziki Saioaren partetik.



OÑATI
Eneko Galdos Zudaire
Urtarrilaren 16an, 4 urte. Zorionak, laztana, etxeko guztien partetik, asko maite zaitugu-eta. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARETXABALETA
Begoña Blazquez
Urtarrilaren 16an, 50 urte. Zorionak! Ondo baino hobeto betetako urte hauengatik! Muxu handi bat familiako guztien partetik.



ARRASATE
Saioa Baena Gorosabel
Urtarrilaren 14an, 34 urte. Zorionak eta urte askotarako, Saio! Oso ondo ospatu eguna Ibai, Jon eta familiako guztien partetik! Patxo potolo bat.



ARRASATE
Jakes Sarabia Mendia
Urtarrilaren 12an, 7 urte. Zorionak, pelotari! Jarraitu horrelako alai izaten eta ondo pasatu eguna. Zure arreba eta gurasoaren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




June Gabilondo Kapelaztegi

Bergara. 3,220 Kilo. Urtarrilaren 13a.
Gurasoak: Amaia eta Asier. Argazkian, June gurasoekin.



Maidar Garzia-Etxabe Murillo

Eskoriatza. 3,860 Kilo. Urtarrilaren 13a.
Gurasoak: Inma eta Aitor. Argazkian, Maidar gurasoekin.



Beñat Etxeandia Lasuen

Abadiño. 3,200 Kilo. Urtarrilaren 16a.
Gurasoak: Amaia eta Jon. Argazkian, Beñat gurasoekin.



Aran Uzuriaga Matilla

Elgeta. 2,870 Kilo. Urtarrilaren 15a.
Gurasoak: Mari Carmen eta Zuhaitz. Argazkian, Aran gurasoekin.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Osatze	Ahotsaren garaiera	Ez dira sakonak
	Bizkaiko udalerria	Ipar EH-n, ispilu	Idien ukulu
	*Gaika bitzeko hondakina		
	Jostunaren tresna		
Ezartzen du	Aragoiko hiria		
Leozko auzoa	Abarren muturrak		
		Germanioa	
	, oinez ibiltzen	
Ostera			
Lorategietako putzua			Oxigenoa
			Egeskin mota
Bizkaieraz, sobera		Agiri mota	
Nekadura		Bokala	
			'Korrika'ren antolatzailea

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	A	V	A	N
A	R	L	A	
O	A	E	L	U
K	I	Z	I	K
E	G	A	Z	U
L	E	R	E	L
I	N	T	I	N
A	M	O	I	Z
A	B			T

D	O	L	O	M	I	T	A	K
A	V	A	U	Y	G	S	A	I
T	I	B	I	D	A	B	O	A
A	A	E	A	E	U	A	E	G
A	E	E	N	G	A	D	I	N
E	U	A	P	S	A	B	A	G
G	A	G	E	I	G	E	R	A
A	U	E	A	E	A	A	E	U
O	R	T	L	E	R	A	U	A

4	7	9	1	5	3	8	2	6
3	5	8	6	9	2	7	1	4
2	6	1	7	4	8	5	3	9
6	3	7	2	8	4	1	9	5
8	4	2	5	1	9	3	6	7
1	9	5	3	7	6	2	4	8
9	2	4	8	3	7	6	5	1
7	1	3	4	6	5	9	8	2
5	8	6	9	2	1	4	7	3



Ezetz igarri!
Zoria / Izoztuta.

SUDOKUA

			9	2				
7	1	3		6				2
	2	4		3	7			5
	9	5						4
								6
6	3		2	8	4			
2			7			5		
3		8		9		7		
				5	3			

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost xxxxx

D	O	L	O	M	I	T	A	K
A	V	A	U	Y	G	S	A	I
T	I	B	I	D	A	B	O	A
A	A	E	A	E	U	A	E	G
A	E	E	N	G	A	D	I	N
E	U	A	P	S	A	B	A	G
G	A	G	E	I	G	E	R	A
A	U	E	A	E	A	A	E	U
O	R	T	L	E	R	A	U	A

EZETZ IGARRI!

Zein animaliak ditu hankak buruan?
—
Nola garraia daiteke ura iragazki batean?

AI, ENE!

Txikitatik, teknologien munduan murgilduta

iPotty du izena argazkiko traman-kuluak: pantaila bat duen umeendako komuna. Horrela hasiko al zen Bill Gates bera ere?
www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Uste dut ona dela politikariak politikatik sektore pribatura joatea"

JUAN JOSE GÜEMES | POLITIKARI OHIA

Madrilgo osasun sailburu zela, Güemesek analisi klinikoak pribatizatu zituen. Astean polemika piztu da, orain arte lan egin izan duen enpresa delako analisi klinikoen zerbitzua eroaten duena. Dena legearen barruan dago, bai, baina hain du usain txarra...
SER

EGURALDIA



Max. 8°

Min. 5°

Astelehenean eguraldi eze-gonkorra eta hotza izango dugu izpide.
euskalmet.net

ASTELEHENEOA

goiena

2013-01-21

HAMARREKOA

Edurne Garmendia Ordiziarrak 15 urte inguru dramatzatza Euskadi Gazteko entzuleen iratzargailu lanak egiten. *Dida*-n entzun dezakegu egun, Joseina, Jon Gotzon eta gainerako troparekin. | TXOMIN MADINA

"Saioan guretik asko ematen dugu, gure bizitzaren parte da"

1. Goizetan kafea ala kolakaoa?
Kafea, bat baino gehiago! Oso kafezalea naiz; tabakoa bezalako beste gauza batzuk utzi izan ditut, txokolaterik gabe ere bizi naiteke... Baina kaferik gabe, inoiz ere ez!

2. Umorearekin esnatzen duzue jendea. Zu zeu ze umorearekin esnatzen zara?

Hain barneratuta dut ordutegia, goizetan martxa dut; badut umore-rako jarrera. Asteburuetan ere, goiz-goiz jaikitzen naiz eta edozer gauzatarako gai naiz. Arratsaldean itzaltzen joaten naiz: 21:00etarako ez dut ez umore ezta ezer ere!

3. Goizean goizetik Jon Gotzon aguantatzeak ez dirudi erraza...


Jon Gotzonen atzean pertsona bat dago eta oso harreman ona dut harekin. Jon Gotzonekin askotan naturala dirudien antzerkia da, eta ondo pasatzen dut harekin ere.

4. "Egunon!" esanpartez "gabon!" esatea eskainiko balizute?

Asko gustatuko litzaidake. Ez dakit gorputzak nola erantzungo lidakeen, baina ohitzea izango da. Tonu, lan egiteko era eta lankideekin dagoen harreman estuagatik askoz nahia-go dut gaueko edo asteburuko txanda. Goiza guk arrankatzen dugu eta motorra izateak badu pisua.

5. Zer kostatzen zaizu egitea di-da?

Erabakiak hartzea, baita huskerietarako ere. Taberna baten inoiz ez dakit zer hartu: ardoa, zurito bat, ura... Dendetan ere berdin.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Elkartasunetik joko nuke"

"Elkartasunaren aldetik joko nuke: iruditzen zait geroz eta berekoiagoak garela eta ez diogula aldamenekoari begiratzen. Kexatzen gara iPhonea zaharra geratzen ari zaigula (nik neuk ez dut, baina...), eta agian hitz egiten ari zaren pertsona horrek ez du lanik. Jendeak begirune handiagoz jokatzeko eskatuko nuke".

6. Beste medio batzuetan ikusi zaitugu, irratia inoiz utzi gabe.

Plusak izan dira, epe motzerako eta irratiarekin bateratzeko baldintzarekin. Nire mugak ikusten ditut; telebistan ez dut etorkizun handirik. Irratikoa lana baino gehiago da: saioan guretik asko ematen dugu, gure bizitzaren parte da.

7. Irratitik bakarrik ezagututa, jakin daiteke nolakoa zaren?

Bai. Ez gara hain txolinak ere, baina Joseinaren emazteak ondo azaltzen du: esan eta egiten ditugunak kontatzen dizkionean, dio larriena dela horrelakoak garela, ez dugula esfortzu handia egin beharrik.

8. Hernaniko lehen txotxa, aurren, zuena. Nolako sagardoa da?

Gustatu arren, ez naiz aditua. Hotzarekin baino nahiago dut udan hartzea, hondartzatik irtendakoan. Gustatu zitzaidan Hernanikoa, eta adituek zioten oso goxoa zegoela.

9. Geneek tiratuta, pentsatu duzu agertokira igotzea?

Bai, baina ez edonola egiteko. Errespetu handia diot lanbide horri: aita aktorea nuen, anaiak ere egiten ditu gauzak eta badakit zer den aktore izatea. Gustatuko litzaidake amateur mailan zer bait egitea.

10. Zein duzu asteburu baterako plan-plin-plan perfektua?

Garai hura oso polita izan zen: lan egiteko beste era bat, entzuleekin oso gertuko erlazioa... Niretako, plan-plin-plan-ak orain ihesaldiak dira: Mungiara, Nafarroara...

AZKEN BERBA

ITXARO ARTOLA



Bi lore eta zaborra tartean

Bizpahiru kontu daukat buruan zutabe honetara berandu gabe ekartzeko. Baina bihotzak laugarren bati eskaintzeko eskatzen dit. Hemen doaz, bada, hiru labor-zurrean eta laugarrena, tartea bete artean. Bat, Zuztarrak Errotuz taldeak egindako *Begira!! Arrasate* erakusketa. Hutsuneak hutsune, bejondeizuela! Eta, nafarrek dioten bezala, etsi bizkor! Bi, Gabonetan edukiontzien inguruan sortu ditugun hondakin-degiak. Askori entzuten zaio zaborrari buruzko debateak nazkatuta daukala. Nire ustez, premiazkoa da. (Jarraituko du). Hiru, festa guzti-guztien bueltan, kalean nahiz etxean, areagotzen diren eraso matxistak. Kastrazioa aldarrikatze gogoa ematen du. Eta lau, omenaldi txiki bat, bizitza aldatu zidanari. Nire lehentasunen epizentroa zilborretik haratago mugitu zuen lurrikarari. Zailtasunei aurre egiteko indarra ematen didan *coach*-ari. Erretzeari uzteko konbentzitu nauen mirarigileari. Lozorroan neukan umea esnarazi zuen jostailuari. Bizitza beste baten alde emateko prest egotea zer den sentiarazi zidan lehenengoari. Aberzale-euskaltzale-ekologista-feminista-ezkertiar izateko dudak motibazio nagusiari. Etzi zazpi urte beteko dituen Lukeni.

HABEko azterketak prestatzeko ikastaroak larunbatetan!



1., 2. eta 3. mailak; baita 4. maila ere!

Noiz: Larunbat goizetan, 08:30etik 14:00etara

Informazioa: Aratz Euskaltegia
945 15 43 41
aratz@ikanet.net
gasteiz.ikanet.net



euskara errazago egiten